

**ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK**

**EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO**

**DUTEN INTERESAREN AZTERKETA**

CEAR-Euskadi, 2008



“Ekintza honek Bizkaiko Foru  
Aldundiaren Kultura Sailaren  
laguntza jaso du”

**Azterketa honen egileak dira:**  
**Itziar Andetxaga, Silvia González, Jose Manuel González-Casanova,**  
**Jurgi Gutiérrez, Estefanía Pasarín, Iñaki Ramirez de Olano,**  
**Ángela Rico y Fernando Zubizarreta.**

**Aipamen berezia egin nahi diegu**  
**desinteresatuki azterketa honetan parte hartu duten**  
**pertsona etorkin eta errefuxiatu guztiei.**

**PERTSONA HORIEI GUZTIEL,**  
**MILA ESKER**

**AURKIBIDEA**

<b>SARRERA</b> .....	<b>1</b>
<b>I.- PROIEKTUA</b> .....	<b>3</b>
<b>II.- METODOLOGIA</b> .....	<b>5</b>
<b>1.- AZTERKETAREN HELBURUAK</b> .....	<b>5</b>
<b>2.- IKERKETA-UNIBERTSOA</b> .....	<b>5</b>
<b>3.- METODOLOGIA AUKERATZEA</b> .....	<b>6</b>
<b>III.- ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-EUSKADI, 2008)</b> .....	<b>8</b>
<b>I DIMENTSIONA - PERTSONA HELDU ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARAREKIKO DUTEN INTERESA ETA EGITEN DUTEN ERABILERA.</b> ....	<b>9</b>
<b>II. DIMENTSIONA - NERABE ETA AURRENERABE ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARAREKIKO DUTEN INTERESA ETA EGITEN DUTEN ERABILERA.</b> ....	<b>29</b>
<b>V.- GOMENDIOAK</b> .....	<b>47</b>
<b>VI. TAULAK</b> .....	<b>48</b>
<b>VII. AIPUEI BURUZKO OHARRAK</b> .....	<b>54</b>

## SARRERA

Erakundearen xedea da arau eta itunen aplikazio egokia sustatzea eta horien garapena bultzatzea: 1951ko Ginebrako Konbentzioa, Giza Eskubideak bermatzeko eta sustatzeko hainbat nazioarteko itun, eta errefuxiatu, desplazatu eta herrigabeak babesteko nazioarteko araudia betearaztea du zeregin nagusi, etorkinen mesedetan, bereziki, eta giza garapen osoa helburu izanik.

CEAR Euskadin ari da lanean 1989 ezkerotik, delegazio gisa, eta 1996an berezko entitate juridikoa hartu zuen. Harrezkero, erakundearen ibilbide profesionalaren adierazle diren hainbat sari jaso ditu CEAR-Euskadik, hala nola, Bizkaiko Foru Aldundiak 2001ean emandako *Utopia Saria*, Eusko Jaurlaritzak 2004an emandako *Dolores Ibarruri Saria* eta 2006an jasotako *Onda Cero Bizkaia Saria Gizarte-lan Solidarioari*.

Asiloa eskatzen duten pertsonekin nahiz arrazoi ekonomikoengatik etortzen direnekin egiten du lan erakundeak. CEAR-Euskadik 87 herrialdeetatik etorritako 3.572 etorkini eta errefuxiatu eman die arreta 2008an, hau da, Bizkaian erroldatutako Europar Batasunetik kanpoko etorkinen %6,14i, eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako %3,06ri. Pertsona horietatik 437k asiloa eskatu dute, 3.127 arrazoi ekonomikoengatik etorri dira, eta 8 herrigabeak dira.

CEAR-Euskadiren esku-hartzeak integralak dira, gai guztiak zeharka aintzat hartzen dira, erabiltzailea eta bere ingurua betiere oso kontuan hartuz. Osoko arreta hori eman ahal izateko, erakundea honela egituratzen da:

### 1. GIZARTE-ARLOA

#### 1.1.- Argibide- eta orientabide-zerbitzua

- Argibide- eta orientabide-programa
- Familiekin esku hartzeko programa
- Bizitza osoan ikasteko programa
- Euskara sustatzeko programa

#### 1.2.- Etxebizitza-zerbitzua

- Aldi baterako harrerarako programa
- Etxebizitza eskuratzeko bitartekaritza-programa

#### 1.3.- Gizarte-zerbitzuak

- Gizarte-laguntzako programa
- Arreta psikologikorako programa
- Kulturarteko bitartekaritza sozialerako programa

### 2.- PRESTAKUNTZA- ETA LAN-ARLOA

- Enpresekiko bitartekaritzarako programa
- Auto-enplegurako aholkularitzarako programa
- Etengabeko ikerketako programa
- Enplegurako orientabide- eta laguntza-programa

### 3.- ARLO JURIDIKOA

#### 3.1. Errefuxiatuei arreta juridikoa emateko zerbitzua

**3.2. Bilboko Udalaren immigrazio-zerbitzua. SEMI**

**3.3. Gasteizko Udalaren immigrazio-zerbitzua NORABIDE**

**4.- BOLUNTARIOTZA-ARLOA**

**5.- EKONOMIA ETA FINANTZEN KUDEAKETARAKO ARLOA**

**6.- PROIEKTUEN ARLOA**

## I.- PROIEKTUA

**“Etorkin eta errefuxiatuen hizkuntzalaritza integraziorako bideak, errealitatearen ikerketa eta esku hartzetik”**

Etorkinekin eta errefuxiatuekin izandako harreman zuzenen esperientziak agerian jarri zuen euskara ikastea sustatzeko ekimenen premia. Harrera-gizartearen hizkuntza ofizialak ezagutzeak garrantzi sozial eta kultural handia du, kulturarteko gizartean integrazteko prozesua sendotzen baitu; eta horregatik, hain zuzen ere, gauzatzen dira esku-hartzeak arlo horretan.

2004an sortu zen *“Immigrazioa-Euskara proiektua”*, bi helburu berritzaile mahaigaineratzen zituena:

1. Etorkinek eta errefuxiatuek euskarari buruz zuten interesari buruzko informazioa biltzea.
2. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, eta etorkinen eta errefuxiatuen seme-alabak euskarazko erduetan eskolaratzea bultzatzea.

Euskara ikasi eta erabiltzearen garrantzi estrategiko eta kulturalaren berri emateko argibide- eta orientazio-ekintzek osatu zuten jarduera nagusien muina, eta azterlan bat egin zen: *“Fomento del conocimiento del uso del euskara y de la integración de los hijos e hijas de las personas inmigrantes en modelos educativos euskaldunes”* (CEAR-Euskadi, 2004).

2005ean *“Euskararen erabileraren eta euskal hezkuntza erduetan etorkinen seme-alaben integrazioaren sustapena. Bigarren fasea”* proiektua gauzatu zen, aurreko ikerlanaren ildotik. Hala ere, aldaketa kualitatibo bat nabarmentzekoa da: etorkinei eta errefuxiatuei orientabidea eta argibideak emateaz gain, euskara ikasteko agertzen zuten interes eskasaren arrazoiak aztertzeari ekin zitzaion.

Era beran, beste txosten bat idatzi zen: *“Estudio CEAR-Euskadi 2005, sobre el interés y uso del euskera por la población inmigrante y refugiada”*, erakunde osoarentzat garrantzi handiko informazio-iturri izan zena.

2006an, *“Etorkin eta Errefuxiatu Guraso eta seme-alabak: Euskarekiko etorkizunerako konpromisoa”* proiektuari esker, urte hartako azterketa gauzatu zen, eta erreferentziazko ikerlan izan zen, bai erakunde eta instituzioentzat, bai immigrazioa eta euskararen alorreko ikertzaileentzat.

Aurrekari horren ildoari jarraiki, erakundeak beharrezkotzat jotzen zuen 2007an euskararen proiektuaren barnean landutako jarduera guztiak sendotzea. Horrela planteatu eta gauzatu zen *“Euskal hezkuntza erduen eta euskararen erabileraren bitartez, pertsona etorkin eta errefuxiatuen, eta beraien seme-alaben integrazioa lortzea”* proiektua.

2008an zehar, CEAR-Euskadik *“Etorkin eta errefuxiatuen hizkuntzalaritza integraziorako bideak, errealitatearen ikerketa eta esku hartzetik”* proiektua gauzatu zuen, euskararen eta etorkinen arteko erlazioari buruzko ikerketa sendotzeko asmoz.

**ETORKIN ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN  
INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)**

Horretarako, erakundeak ikerketa-talde bat osatu zuen, pertsona boluntarioekin, praktiketan zeuden pertsonekin eta soldatapekoekin, eta, binomio hori alderdi hauen bidez aztertu da bereziki:

- CEAR-Euskadiko erabiltzaile diren pertsona helduek euskararekiko duten interesa eta egiten duten erabilera.
- CEAR-Euskadiko erabiltzaile diren nerabeek eta aurrenerabeek euskararekiko duten interesa eta egiten duten erabilera, eta, bereziki, eskoletako errealitatea.

Azterketa hori sendotzeko, euskararekin eta immigrazioarekin erlazionatutako pertsonen eta erakundeen helarazi zaie 2007an egindako azterketa. Bestalde, 2008 urtearen amaieran, eta behin azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa eginda zeudenean, hedapen zabalagoa eman zaio komunikabideen bitartez, hala nola, ohiko prentsaren, irrastien eta egunkari elektronikoen bitartez.

Ikerketarekin batera, CEAR-Euskadiko zuzeneko esku-hartzerako taldeak berriz ere lan egin du euskal errealitate kulturala eta linguistikoa errazteko eta bermatzeko. Horretarako, CEAR-Euskadiko erabiltzaile diren pertsona etorkinei eta errefuxiatuei informazioa eman diegu, bereziki nabarmenduz hezkuntza-sistemako berezitasunak eta hizkuntza bat edo beste aukeratzeak beren seme-alabengan izango dituen eraginak.

## II.- METODOLOGIA

### 1.- Azterketaren helburuak

Ikerlan honen bidez, etorkinek eta errefuxiatuek euskara ikasi eta erabiltzeari buruz dituzten jarrerak aztertu nahi izan dira alde batetik; eta, bestetik, etorkinek euskararekiko duten interesean motibazioa gehitzen edo kentzen duten faktoreak zein diren jakina nahi izan dugu.

Horretarako, bi dimentsiotan banatu da txostena:

- a. **Pertsona heldu etorkinek eta errefuxiatuek euskararekiko duten interesa eta egiten duten erabilera.** Dimentsio honetan, errealitate sozio-demografikoa, kolektiboaren migrazio-prozesua eta adingabekoen hezkuntza-eredua aztertzen dira, eta euskara ikasteko duten gogoarekin erlazionatzen dira alderdi horiek. Euskal kultura ezagutzeko eta euskara ikasteko motibazioak eta zailtasunak zein diren aztertzen da.
- b.
- c. **Nerabe eta aurrenerabe etorkinek eta errefuxiatuek euskararekiko duten interesa eta egiten duten erabilera.** Dimentsio honetan, adingabe-kolektiboaren errealitate sozio-demografikoa zein den jakin nahi izan dugu, adingabe horiek matrikulatuta dauden hezkuntza-ereduaren arabera, eskolatzeko-moduaren eta eskolatutako hezkuntza-ereduaren ikuspegiaren artean zer erlazio dagoen, bai eta adingabeek euskararekiko zer pertzepzio sozial duten ere.

Helburu horiek zenbait aldagai sozio-demografikotan edo faktore muinabakarretan banatu dira:

- Aldagai gisa, honako hauek nabarmendu ditzakegu:  
Adina, sexua, jatorriko herrialdea, zer herritan bizi diren, profila, hizkuntzak jakitea, euskararekiko interesa, etab.
- Faktore gisa, honako hauek nabarmendu ditzakegu:  
Migrazio-prozesuko aukerak, euskararekiko interesaren bilakaera, hizkuntza ikasteko zailtasunak, nola ikusten duten bertako herritarrek egiten duten euskararen erabilera, euskararekiko motibazioa gehitzen edo gutxiagotzen duten faktoreak, etab.

### 2.- Ikerketa-unibertsoa

Bi lagin hartu dira ikerketarako, aztertu beharreko aldagai moten arabera:

- CEAR-Euskadik lagundutako etorkinen eta errefuxiatuen **ezaugarri sozio-demografikoak** aztertzeko, euskara ikasteko gogoari eta beren seme-alabak matrikulatzen dituzten ikastereduari dagokienez, erakundeak arreta emandako pertsonen %100i egin diogu elkarrizketa.
-

3.572 pertsonako lagina da hori (pertsonek %7,25 Bizkaiko etorkinak dira); pertsona horiek 87 herrialdeetakoak dira (batez ere Marokokoak, Boliviakoak eta Kolonbiakoak), eta horietatik %71 gizonetakoak dira, eta %29, berriz, emakumeetakoak. Horietatik %98 Bizkaian bizi dira, batez ere Bilboko udalerrian (%79 hain zuzen ere).

- Etorkinek eta errefuxiatuek euskararekiko duten **jarrera** zein den jakiteko, zenbait elkarrizketa sakon eta eztabaida-talde egin dira. Tresna horien bitartez, bi talde desberdin aztertu ditugu ikerketa-kolektibo gisa:

1. Etorkin eta errefuxiatu helduak; kolektibo honi dagokionez, honako alderdi hauekin erlazionatutako helburuak landu dira batez ere: aldagai sozio-demografikoak, migrazio-prozesua, euskara ikasteko motibazioa ematen eta kentzen duten faktoreak, euskarari buruzko ikuspegiaren bilakaera eta beren ardurapean dauden adingabeak ikasteredu batean edo beste batean matrikulatzeko motibazioak.

- 2.

Ezaugarri sozio-demografiko desberdinak dituzten 17 pertsona etorkini eta errefuxiaturi egin zaie elkarrizketa; horietatik 11 emakumeetakoak dira, eta gainerako 6ak gizonetakoak. Horien jatorriari dagokionez, hamar herrialdeetakoak dira. 4 pertsona europarrak dira, Errusiakoak, Georgiakoak eta Moldaviakoak hain zuzen ere.

6 pertsona afrikarrak dira; Kongokoak, Aljeriakoak, Senegalekoak eta ekialdeko Saharakoak. Azkenik, 7 pertsona hegoamerikarrak dira; Argentinakoak, Ekuadorrekoak, Boliviakoak eta Kolonbiakoak hain zuzen ere. Adinari dagokionez, 25-50 bitarteko adin-tartean sartzen dira, eta gehienak 30-40 urte bitartekoak dira. Elkarrizketatutakoen artean, 15 Bilbon bizi dira, eta beste 2ak Barakaldon. Bukatzeko, beren ardurapean adingabeak dituztenen artean, gehienek B ereduan matrikulatu dituzte, 8k hain zuzen ere; beste 5ek D ereduan, eta 4k A ereduan.

3. Eskolatzeko adinean dauden etorkinak eta errefuxiatuak; kolektibo honekin, honakoekin erlazionatutako helburuak landu dira batez ere: ikastereduetara egokitze zailtasuna, gazte etorkinek euskarari buruz duten ikuspegia eta euskararen erabilera soziala.

Eskolatzeko adineko 9 etorkini eta errefuxiaturi egin zaie elkarrizketa. Elkarrizketatuek honako ezaugarri hauek dituzte: 5 neskek dira, eta 4 mutilak. Adingabeko gehienak, 7 zehazki, afrikarrak dira, Marokokoak eta Aljeriakoak. Beste bat europarra da, Errusiakoa; beste 3, berriz Kolonbiakoak. Adinari dagokionez, 10-18 bitarteko adin-tartean sartzen dira, eta gehienek 18 urte dituzte. Gehienak Bilbon bizi dira, eta bat Leioan bizi da. Bukatzeko, ikastereduari dagokionez, gehienak A ereduan daude, 6 guztira; beste 2 B ereduan daude, eta bakarrik D ereduan.

### 3.- Metodologia aukeratzea

ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN  
INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)

Ezarritako bi dimentsio horiekin lan egiteko, helburu espezifiko batzuk ezarri dira, horiek zehazteko. Helburu horien bitartez hurbildu gara ikerketa honetan aplikatutako metodologiara. Helburu batzuk, deskribatzaileak direnak eta datuak erakundeko erabiltzaile guztietara estrapolatzeko xedea dutenak, teknika kuantitatiboan oinarritzen dira; helburu muinabakarrak, berriz, teknika kualitatiboan. Horregatik, azterketan metodologia mistoa erabili da: helburu eta hipotesi batzuk kualitatiboki aztertu dira, eta beste batzuk, berriz, kuantitatiboki.

- Metodologia kuantitatiboan, erakundeko erabiltzaile guztien datuak estrapolatu nahi dira estatistikaren bitartez. Horregatik neurtzen dira aldagaiak zenbakien bidez. Halere, ondoren, metodologia kualitatibora ere pasa daitezke datuak. Ikuspegi kuantitatiboa itxia da azterketari eta interpretazioari dagokienez, baina zehatzagoa da egituratuago dagoen informazioa aukeratzeari dagokionez.
- Metodologia kualitatiboaren bitartez, fenomenoak ulertu nahi dugu; horregatik komeni da kuantifikatzea. Ikuspegi kualitatiboaren abantaila da irekiagoa dela eskuratutako datuak interpretatzeko eta aztertzeko orduan, baina subjektiboagoa da; horregatik, ikertzaileak ahaleginak egin behar ditu uneoro neutraltasuna mantentzeko.

### III.- ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-EUSKADI, 2008)

2008 urtean zehar, CEAR-Euskadik 3.572 pertsoneri buruzko datuak bildu eta eguneratu ditu, eta beste 25 elkarrizketatu ditu etorkinek euskara ikasteko eta erabiltzeko duten interesaren gainean. Honako alderdi hauei eman diegu garrantzia:

- CEAR-Euskadiko erabiltzaile diren etorkinen euskara ikasteko interesaren bilakaera behatzea, 2004tik 2008ra bitartekoa.
- 
- Etorkinen euskararekiko motibazioa handiagotzen edo gutxiagotzen duten faktoreak sakonki aztertzea.
- Familia etorkinen ardurapean dauden adingabeak zer ikasteredutan matrikulatzen dituzten jakitea.
- Zehaztea zer desberdintasun dauden EAEn matrikulatutako etorkin adingabeen eta CEAR-Euskadik lagundutako gizarteratze-programa batean dauden pertsonen ikastereduen artean.

Bildutako eta aztertutako informazio guzti hori hartu da oinarri txosten hau egiteko.


## I Dimentsioa - Pertsona heldu etorkinek eta errefuxiatuek euskararekiko duten interesa eta egiten duten erabilera.

### 1. helburua: pertsona helduen kolektiboaren errealitate sozio-demografikoa zein den jakitea, euskara ikasteko gogoari dagokionez.

Etorkinek eta errefuxiatuek euskara ikasteko eta erabiltzeko zenbateko interesa duten jakin ahal izateko, zenbait aldagai sozio-demografiko (adina, sexua, nazionalitatea, etab.) gurutzatu ditugu euskara erabiltzeko duten interesarekin. Aldagai horiei buruzko informazio biltzeko, lehen onespenerako galdesortak erabili dira, eta CEAR-Euskadiko erabiltzaileen %100ak erantzun dio horiei.

Elkarrizketatuen artean, %44,18k soilik aitortzen du euskara ikasteko gogoia duela; %55,02k, berriz, interesik ez duela dio, eta %1a baino gutxiago dago egun euskara ikasten. Pertsona horiek ez dute euskara ikasteko gogorik hizkuntza oso zaila dela iruditzen zaielako, eta ez zaielako iruditzen gaztelania bezainbat erabiltzen denik. Horregatik guztiatik, euskara ikatea bigarren plano batean geratzen da, eta garrantzi handiagoa ematen zaie etxebizitza eta lana edukitzeari eta gaztelera ikasteari.


Euskara ikasteko gogoia dutela aitortzen dutenek diote zailtasun nagusiak direla kostu ekonomikoa eta denbora falta; bertakoek ere zailtasun berak ikusten dituzte. Kostu ekonomikoari dagokionez, nabarmentzekoa da beren euskalduntzea AISA programen bidez hasi dutenek oso positiboki baloratzen dutela, baina, behin horiek bukatu direnean, ezinezkotzat jotzen dutela euskara ikasten jarraitzea.




Ikus dezakegunez, 2004tik gaur egun arte, ez da aldaketa handirik egon, euskara ikasteko gogoia duten etorkinen eta errefuxiatuen kopuruari dagokionez. Halere, nahiz eta euskara ikasteko gogoia dutenak gutxiago diren interesik erakutsi ez dutenak baino, azken urte honetan euskara ikasteko gogoia duten pertsonen portzentajea %4 hazi da.

Nahiz eta guztirakoarekin alderatuta garrantzitsua ez izan, nabarmentzekoa da euskara ikasten ari diren pertsonen kopurua. Ikus dezakegu azken 4 urteotan hazi egin dela kopuru hori; 2004an ez zegoen euskara ikasten ari zen pertsonarik, eta gaur egun erabiltzaileen %0,80 euskara ikasten ari dira. Erabiltzaile-kopuru hori oso handia ez bada ere, nabarmentzekoa da joera goranzkoa dela; pentsa dezakegu joera hori ez dela halabeharrezkoa, eta denboran zehar iraungo duela.

**ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)**



Sexua eta euskara ikasteko interesa aldagaiak gurutzatzen baditugu, ikus dezakegu erlazionatuta daudela, pixka bat bada ere; esan dezakegu gizonezkoen portzentaje handiagoak (%57,92) ez duela euskararekiko interesik, emakumezkoen portzentajearekin (%48,15) alderatuta. Ondorioz, emakumezkoen gehiengoak, %51,06ak hain zuzen ere, euskara ikasteko eta erabiltzeko interesa duela dio. Euskara ikasten ari direnen artean, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko diferentzia oso txikia da (%0,02koa zehazki).




Euskara ikasteko gogoia eta adina aldagaiak aztertzen baditugu, dirudienez, ez dago erlazorik; adin-talde guztietan interes falta dago euskararekiko. %10eko diferentzia dago adin-tarteen artean; 36-45 urte artekoena %5,95koa da, eta 18 eta 25 urte bitartekoena, berriz, %13,36koa. Bi datu nabarmentzen dira, esanahi-balioagatik baino, muturreko jarrerak erakusten dituztelako. Hain zuzen ere:

- 56 eta 65 urte arteko populazioak diferentzia handia erakusten du. Horien artean, %68,09k aitortzen du ez daukala inongo interesik euskara ikasteko.

ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)


- 65 urtetik gorako populazioa banatuta dago erabat. Horietako erdiak interesa dauka euskararekiko, eta beste erdiak, berriz, interes eza. Halere, inor ez da ari euskara ikasten.



Planteatutako hipotesietako bat zen espainiera hitz egiten zuten pertsonen interes handiagoa zutela euskara ikasteko, ez baitzuten gaztelera ikasi beharrik. Hori argitzeko, euskararekiko interesa eta jatorriko herrialdea aldagaiak aztertu ditugu, eta espainieradunak diren edo ez hartu dugu kontuan. Ikus dezakegunez, badago erlazioa gaztelera jakitearen eta euskara ikasteko interesaren artean:


- Herrialde espainieradunetako populazioaren artean, portzentaje handiago batek ikasi nahi du euskara, %63,69k, hain zuzen ere; %35,34k, berriz, ez du interesik. Bestalde, kolektibo horren %1a euskara ikasten ari da gaur egun.
- Horiekin alderatuta, espainieradunak ez diren herrialdeetatik datozen pertsonen gehiengoak (%66,86) dio ez duela interesik euskara ikasteko, eta %0,69 soilik ari dira egun euskara ikasten.

**ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)**



CEAR-Euskadiko erabiltzaileak hiru profiletan bana daitezke migrazioa eragiten duten arazoietan oinarrituz gero. Horrela, horietako batzuk errefuxiatuak edo asilodunak dira, jarraituak izan daitezkeelako irten direlako beren herrialdetik; beste batzuek beren herrialdetik emigratzen dute bizi-kalitatea hobetzeko asmoz; eta, azkenik, herrigabeak ere badaude, hau da, nazionaltaterik ez duten pertsonak.


Bi aldagai horiek erlazionatuz gero, ikus dezakegu kontuan hartzeko moduko erlazioa dagoela. Etorkinen kolektiboak interes handiagoa dauka euskara ikasteko (%47,60), galderei erantzun dieten pertsonen erdira iristen ez bada ere. Bestalde, herrigabeek edo asilodunek interes eza erakusten dute euskararekiko (%80,00ak eta %85,67ak, hurrenez hurren). Etorkinen kolektiboan, euskara ikasten ari direnen portzentajea handiagoa da; %0,81 hain zuzen ere.



**ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN  
INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)**


Munduko beste hizkuntza batzuk ere bizi izan dute euskarak azken mendean bizi izan duen errealitate soziolinguistikoa, hau da, hori ikasteko eta erabiltzeko debekua eta marjinazioa; horiek oso lotuta daude historiarekin, ohiturekin eta hizkuntzaren gizarteko erabilerarekin. Horregatik, hizkuntza gutxituren bat (adibidez, bereberra, kitxua eta wolofa) dakiten pertsonen eta horiek euskara ikasteko duten interesaren artean zer erlazio dagoen aztertu dugu.

Nolabaiteko erlazioa nabarmentzen da bi aldagai horien artean. Izan ere, hizkuntza gutxituren bat dakitela aitortzen dutenen artean, erdiak baino gehiagok (%53,95) du euskara ikasteko gogoia; hizkuntza gutxiturik ez dakitenen artean, berriz, %43,38k. Kopuru txikia bada ere, nabarmentzekoa da, hizkuntza gutxituren bat hitz egiten dutenen artean, %2,19 euskara ikasten ari dela egun. Galderei erantzun dietenen artean, gutxi gora-behera %7,5ek daki hizkuntza gutxituren bat.




Etorkinen eta errefuxiatuen prestakuntza akademikoa ere aldagai sozio-demografiko garrantzitsua da. Aldagai hori euskara ikasteko interesarekin alderatuz gero, ikus dezakegu badagoela nolabaiteko erlazioa, baina txikia oso. Halere, esan genezake euskara ikasteko interesa erakusten dutenen edo euskara ikasten ari direnen gehiengoak (%50,39 eta %43,48, hurrenez hurren) bigarren hezkuntzako ikasketak egin dituela. Bestalde, euskara ikasteko interesik ez dutenen %40,39k lanbide-heziketako ikasketak egin ditu.

**ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)**



Etorkin eta errefuxiatu bakoitzak bizi duen errealitatea asko alda daiteke bizi den udalerrriaren arabera. Horregatik, CEAR-Euskadiko erabiltzaile gehienak (galderei erantzun dieten pertsonen %89,32) bizi diren 5 udalerrietako egoera aztertu dugu. Ikus dezakegunez, Getxon eta Erandion erakusten dute pertsona horiek euskara ikasteko interes handiena, horietako populazioaren %61,70ek eta %57,14k baitu euskara ikasteko gogoia, hurrenez hurren. Gainerako udalerrietan (Bilbo, Barakaldo eta Sestao), euskara ikasteko interesik ez dutenen portzentajea handiagoa da interesa dutenena baino.

Halere, azpimarratzekoa da, Sestaon, jendearen gehiengoak interesik ez badu ere, %2,08 euskara ikasten ari dela, eta hori da portzentaje handiena bost udalerrietan. Gainera, Getxon eta Erandion, euskara ikasteko interes handiagoa badago ere, ez dago euskara ikasten ari den inor.



**ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN  
INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)**

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) 2006an jasotako datuetan oinarrituta, euskara ikasten ari direla aitortu duten erabiltzaileak bizi diren udalerriak alderatu ditugu udalerrien beraien euskalduntze-mailarekin.

Horrela, ikus dezakegu euskara ikasten ari diren pertsonak bizi diren udalerriak ez direla guztiz euskaldunak; izan ere, udalerrri horien artean euskaldun gehien dituen udalerrria Laudio/Llodio da, %26,54 hain zuzen ere. Agian, proportzio horien arrazoi izan daiteke CEAR-Euskadiko erabiltzaile gehienak Bilbo Handian bizi izatea, Bilboko udalerrrian zehazkiago, erabat euskaldunak diren udalerrietako etorkinen populazioa kanpoan uzten baitu horrek.

	<b>Ikasten Guztira</b>	<b>Ikasten Portzentajea</b>	<b>Euskaldunak Portzentajea</b>	<b>Kuasi- euskaldunak Portzentajea</b>
<b>Laudio/Llodio</b>	1	50,00%	26,54%	25,15%
<b>Portugalete</b>	1	4,17%	19,97%	22,10%
<b>Barakaldo</b>	2	1,94%	18,27%	21,90%
<b>Bilbo</b>	19	0,77%	24,30%	24,00%

2. helburua: euskara erabiltzeko motibazioa eta zailtasunak zein diren jakitea.

Orokorrean esan dezakegu, gaur egun, errefuxiatuen eta etorkinen kolektiboak zailtasun gehiago ikusten dituela euskara erabiltzeko motibazioak baino. Mota askotako arrazoi ugari daude, eta, jarraian datorren atalean, motibazio eta zailtasun horiek aztertuko ditugu.

Errefuxiatuek eta etorkinek, Euskal Autonomia Erkidegora etortzen direnean, ez dakite zein diren euskalduntze-bitartekoak, hau da, ez dakite euskara non ikas dezaketen. Hemen denbora bat pasatzen dutenean ohartzen dira beste hizkuntza bat dagoenez, eta orduan erabakitzen dute hori ikasi edo ez. Horren inguruko informazioa ematen diete erakunde publikoek, ikastetxeek, udalek edo CEAR-Euskadik. Azpimarratu behar da elkarrizketatutako pertsonen gehiengoak CEAR-Euskadiren aholkuak jasotzen dituela.

*"Ni ikastetxe baten bila nenbilen, eta kaleko jendeak informatu ninduen (...). Beraiek klaseak nola ematen zituzten esan zidaten soilik."*

*"Niri ikastetxean bertan eman zidaten ikastereduei buruzko informazioa."*

*"Ni udaletxera joan nintzen, eta zer ikastetxe zeuden esan zidaten."*

*"Lehenengo urtean zehar irakasleek aholkatu ninduten (...) HHEn egon nintzenez, banekien zer eredu zeuden."*

*"Kale Nagusiko ordezkarietan esan zioten zer ikastetxetara joan."*

Askok ez dakite euskara existitzen denik ere, horietako batzuk hemen denbora luzez bizi izan badira ere.

*"Ez nekien beste hizkuntza bat zegoenik, gaztelerarekiko horren desberdina dena."*

*"Ez dakit euskara zer den, ez naiz ohartu erabiltzen ote den."*

Gehienek zailtasunak dituzte euskara ikasteko, Euskal Autonomia Erkidegoan denbora luzez bizi izan badira ere. Denbora falta da zailtasun handiena, bai helduentzat, bai adingabeentzat ere. Lan egin eta adingabeak zaindu behar dituztenez, ez daukate euskaltegi batean matrikulatu eta euskara ikasteko astirik.

*"Ez naiz ikasten ari zaila iruditu zitzaidalako; nik garai hartan lan bat aurkitu nahi nuen, nire semeak ere gauzak behar zituen, eta nik lan bat behar nuen pisu bat erosteko (...). Gainera denbora behar da, nik ostalaritzan lan egiten dut, eta etxera iristean badago zereginik, bazkaria edo prestatu, eta ez duzu semea ikusten. Hori da zailtasun handiena, ikastaroa eginez gero, ¿nola biziko zara?"*

*"Denbora falta, gauza askoren falta; lanean ari zaren artean, eta familia badaukazu ez da horren erraza..."*

*"Berak ikasi nahi du euskara, baina, orain, ikasketekin lan handia dauka".*

Euskara ikasi duten pertsonen ikastaroak utzi behar izaten dituzte denbora faltagatik, lanagatik eta adingabeak zaindu behar dituztelako.

*"Pena eman zidan uzteak, baina gauez lan egiten nuen. Ikastaroa ere gauez zen, eta nik jatetxe batean egiten nuen lan; arratsaldeko 5etan sartzen nintzen, eta ezin nuen, pena eman zidan baina..."*

ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN  
INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)

*"Ordutegi berean txapa-konpontzaile izateko ikastaro bat egiteko aukera sortu zitzaidan, eta horregatik utzi nuen."*

*"Euskara ikasi nahi nuke, baina, orain, gauza asko ditut egiteko; lana bilatu behar dut, eta ez daukat denborarik."*

Bestalde, dirua da beste zailtasun bat. Euskara ikastea garestia da beraiantzat. Bertako bati adina kostatzen zaie, baina horien erosteko ahalmena baxuagoa izan ohi da, eta, askotan, ezinezko egiten zaie ikastaro bat ordaintzea.

*"Lana bilatzea eta dirua irabaztea da gakoa; ondoren ikastaroak, ikasketak eta horrelakoak bilatu ahal izango ditut, baina dirurik gabe ezin dut ezer ere egin."*

*"Nire egoera ekonomikoa bestelakoa balitz, ikastaro bat ordainduko nuke oraintxe bertan, eta ikasten hasi, baina ez da hala..."*

*"Etorri nintzenean ezin nuen euskara ikasi arazo ekonomikoak eta denbora falta zirela eta."*

Beste batzuen iritziz, ordea, ikastaroak ez dira horren garestiak.

*"Lan Ekintzan begiratzan aritu nintzen; ordaindu beharreko bat aurkitu nuen, eta ez zen oso garestia."*

Euskara ikasteko arazo horiez gainera, gizarteak, oro har, gehiegi erabiltzen ez duenez, eta erakundeek euskara ikasteko laguntza ekonomikoak ematen ez dituztenez, etorkinek eta errefuxiatuek ez dute euskara ikasteko gogo handirik, eta ez dute beharrezkotzat jotzen.

*"Suedian, adibidez, suediera ikasten baduzu, estatuak mantentzen zaitu, interes handia baitu jendeak suediera ikas dezan. Horregatik, errenta minimo bat ordaintzen dizute; baina zuk ezin dituzu klaseak galdu, ezin duzu errenta kobratu eta klasera joan gabe geratu. Mantentzen zaituzte zuk hizkuntza hori ikasteko baldintzarekin. Nire ustez baldintza egokiak eman beharko lituzkete. Zuk erabakitzen duzu behar duzun edo ez."*

*"Eguneroko bizitzan ez dute behar, familia-ingurunean ez dute behar; agian etorkizunean, baina orain ez dut beharrezko ikusten horiek hizkuntza ikasi izatea, beti dago denbora ikasteko."*

Beste batzuen iritziz, ordea, euskara ez dago horren gutxitua, eta gizarteak garrantzi handia ematen dio.

*"Nire ustez euskara ez dago horren gutxitua; garrantzia gehiegi ematen zaiolako zenbait jende kexu dela ere ikusi dut."*

Euskal Autonomia Erkidegora iristean, espainieradunak ez direnek lehentasuna ematen diote gaztelari komunikatu ahal izateko, errazagoa iruditzen zaielako, eta zailago ikusten dutelako euskara ikastea.

*"Gaztelera da garrantzitsuena, ongi jakin behar da (...); nire ustez gaztelera ikasi behar da lehenbizi, eta euskara ikastea bakoitzaren baitan dago, aukera bat da."*

*"Euskara ikasteko, gaztelera ikasi behar da lehenengo."*

Errefuxiatuen eta etorkinen kolektiboaren arabera, bertakoek ez dute ia euskara erabiltzen; herri txikietan edo lan administratiboetan erabiltzen da soilik. Euskara horren gutxi erabiltzeak euskara ikasteko motibazioa gutxiagotzen die etorkinei.

*"Lantokietan gutxi hitz egiten da. Zenbait tabernetan jendeak hitz egiten du eta, baina gutxi erabiltzen da (...) gutxi erabiltzen da, eta, nire ustez, horren gutxi erabiltzen denez, jendeak, eta etorkinek bereziki, ez dute hori ikasteko erabakia hartzen (...) hemen dauzkadan lagunetako inork ez du euskaraz hitz egiten, agian hitzen bat badakite baina ez dute erabiltzen (...) hemen hori ez da arazoa, euskara ez baita erabiltzen, ezta lanean ere; gehiago erabiltzen da toki itxiagoetan."*

*"Ez dut kalean sekula euskara entzun (...) orain arte ez dut arazorik izan euskararekin, ez baita entzuten. Ia mundu guztiak gazteleraz hitz egiten du, eta nire lana ez da bulegokoa edo idazkari-lana... ez daukat arazorik nire bizitza egiteko."*

*"Ikastetxe publikoetako irakasleez gainera, ez dut inor entzuten euskaraz hitz egiten. Herrietan jendea komunikatzen da euskaraz."*

*"Orokorrean, euskaraz dakienak gazteleraz ere badaki. Toki gutxitan hitz egiten du jendeak euskaraz, herria izan behar du, baina, halere, interesgarria iruditzen zait (...) Nik jende askori egiten dizkiot galderak, baina batez ere baserrietan erabiltzen dela esaten didate."*

*"Hemen jaiotako jendeak ez daki euskaraz hitz egiten, eta hitz egiten ez bada, galdu egingo da."*

*"Gehiago erabiliko balitz, errazagoa izango litzateke ikastea; izan ere, nik haurrei entzuten diet euskaraz hitz egiten, eta gurasoek, ikastetxean, euskaraz hitz egiten diete haurrei."*

*"Entzutez egiten da guztia; ez baduzu askotan entzuten, asko kostatzen da ikastea."*

*"Nik lan egiten dudan tokian ez da erabiltzen, baina pertsona adinduek erabiltzen dute beren artean, eta nire lankide batzuek ere hitz egiten dute euskaraz."*

*"Erabili erabiltzen da, baina, diodan bezala, herrietan askoz ere gehiago erabiltzen da. Hemen ere erabiltzen da; ni parkera joaten naizenean haurrekin eta horien amekin, %90ak euskaraz hitz egiten du."*

Askorentzat, garrantzitsua da euskara erabiltzea, kulturaren parte baita, eta, hori horrela, nahitaezkoa da hori ikastea.

*"Euskara ez da asko erabiltzen, eta erabili egin behar da, bakoitzak bere kultura bizi behar du."*

*"Inork ez dit esan ikasi behar denik, baina, halere, nik sentitzen nuen ikasi behar dela, hemengo hizkuntza delako, komunikatzeko (...) ikasi egin behar duzu, gizartearekin bizi zarelako, eta horrela gizarteko kide bihurtzen zarelako."*

Bestalde, batzuen ustez, gero eta gehiago erabiltzen da euskara.

*"Jendeak gero eta gehiago erabiltzen du (...) metroan, ikastetxeetan... asko erabiltzen da, jende adinduak euskaraz hitz egiten du."*

*"Gero eta jende gehiago entzuten dut euskaraz hitz egiten (...) egunerokotasunean ikusten da, eta janari-pakete batzuk euskaraz datoz."*

*"Euskaraz hitz egiten da; nik lan egiten dudan lekuan, familiak euskaraz hitz egiten du (...) lanean erabiltzen da (...) Bai, egia da, dezente erabiltzen da."*

*"Aurten beste urte batzuetan baino gehiago entzun dut, metroan behintzat."*

*"Gauza batzuk euskaraz esaten dituzte konturatu gabe."*

Beste alde batetik, euskara ikasi nahi duen jendearentzat ere, errazagoa da ikastea behin gaztelera ikasi dutenean. Bi hizkuntzak osagarritzat hartzen dituzte; izan ere, behin gaztelera ikasi dutenean, irakasleak gaztelera eman ahal izango ditu azalpenak. Badago kontrakoa pentsatzen duenik ere. Irakasleak eta ikasleak, biek gaztelera jakinez gero, komunikazioa errazagoa eta hobea izango da.

*"Hizkuntza bat baino gehiago dakizkizunean errazagoa da beste batzuk ikastea (...) euskara-ikastaro bat egiten badut, horrek gaztelera ere gehiago ezagutzeko aukera emango dit (...) Gaztelera hitz batzuen esanahia zein den jakiteko, ongi dator euskara ikastea."*

*"Gaztelera baldin badaki, euskaraz zer esan nahi duen azaldu ahal izango dizu gaztelera."*

Osagarriak badira ere, gehienentzat beharrezkoa da gaztelerrari lehenetsia ematea, Euskal Autonomia Erkidegoan komunikatzeko nahikoa baita gaztelera.

*"Gehien erabiltzen dena ikasi behar da lehenbizi."*

*"Agian ikas ditzakezu biak batera, baina, nire ustez, lehenengo gaztelera ikasi beharko litzateke, eta, gero, euskara, biak batera ikasiz gero nahastu egin ditzakezulako (...) hoberena da bat hartzea, eta banaka ikastea; bat ikasitakoan, ongi, eta gero bestera pasa eta hori ikasi."*

*"Ikastaroak egin behar ditut, noski, baina gazteleraezkoak. Gaztelera hobetu behar dut, euskara ikasteko gaztelera jakin behar baita, euskara azaltzeko, eta guk gaztelera ongi ulertzen ez badugu, ezin dugu euskara ikasi."*

Biak batera ikasteak ere baditu desabantailak; izan ere, askotan nahastu egiten dira kontzeptuak, eta batzuek ez dute ikusten berdintasunik dutenik.

*"Nire ustez kaltegarria da adimenarentzat, biak batera landuz gero, ez baituzu ikasten."*

*"Nire ustez gaztelera jakiteak ez du euskara ikasteko motibaziorik ematen, gure adineko jendeak uste baitu horrekin nahikoa dela."*

*"Euskarak ez dauka zerikusirik gaztelerekin."*

Hemen egongo diren denboraren arabera, eta bilatzen duten lanaren arabera, euskara ikasteko gogo gehiago dute. Epe luzerako etorri direnek edo lan garrantzitsu bat izan nahi dutenek garrantzi handiagoa ematen diote euskarari; lanean eskatuz gero ikasiko luketela diote. "Lan on bat" eskuratzeko aukerarekin lotzen da euskara.

*"Euskara ikasiko nuke ekarriko lizkidakeen abantailen arabera, baina denbora eta lana eskatzen du."*

Baina, epe motzerako etorri badira Euskal Autonomia Erkidegora, edo egin behar duten lana oso garrantzitsua ez bada, ez dute beharrezkotzat hartzen euskara ikastea.

Tutoreek, gehienetan, ez dute nahi duten lana egiten, baina beren seme-alabak egoera hobean egotea nahi dute, eta uste dute beren seme-alabentzat beharrezko izan daitekeela euskara ikastea "lan on bat" lortzeko.

*"Nire semeak euskara ikastea garrantzitsua da; izan ere, etorkizunean, edo kolorearen faltan, zuk bezala hitz egingo du, eta, lanerako, behar du hori."*

*"Etorkizunean aukerarik badu, euskara ikasi behar luke."*

*"Niri gustatuko litzaidake euskara irakastea; egunen batean semeren edo alabaren bat izaten badut hemen, euskara ikasten jarriko dut noski, etorkizunean beharko du eta."*

*"Nire ustez garrantzitsua da euskara, entzun dudanez, hemen lan egiteko toki askotan euskara behar baita."*

Beste alde batetik, euskarak mugak dituela irizten dute, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan soilik erabiltzen dela, eta hortik kanpo ez dela ezertarako erabiltzen. Horregatik, garrantzitsuagoa iruditzen zaie beste hizkuntzaren bat ikastea, ingelesa adibidez, nazioartean gehiago erabiltzen delako; epe luzera kaltegarria izango da hori, euskara erabiltzen ez bada, galdu egingo delako.

*"Nire ustez, bere iritzia ingelesez azaltzeko gai den euskaldun batek gehiago transmititu ahal izango luke, gauza batzuetarako haserako oztopo baten antzeko zerbait sortzen baita."*

*"Nire ustez hiria ixten dugu. Euskara derrigorrezko eskakizun izaten da askotan. Nik ingelesaren aldeko apustua egingo nuke lehenago. Ingalaterran ikasi eta Euskal Autonomia Erkidegora itzultzeko aukera eman dezake, bertan zerbait patentatzera. I+Gari dagokionez, badago aldea hegoaldearekiko, baina beste herrialde batzuekin alderatuz gero, galdu egiten dugu, informazio-fluxu mugatuak sortzen ditugulako. Ingelesa akademikoki sartuz gero, hobekuntzak egongo dira epe luzera."*

*"Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnetatik, ez dute guztiek euskara ikasi nahi, eta batzuk joan egiten dira; hori, epe luzera, kaltegarria izango da."*

Bukatzeko, tutoreek diotenez, frustrazioa sentitzen dute, beren seme-alabei ezin dietelako lagundu etxeko lanak egiten. Adingabeek zalantzei buruzko galderak egiten dizkiete, baina, gurasoek euskaraz ez dakitenez, ezin diete lagundu. Horren ondorioz, haurrek ez dute laguntzarik lortzen familiarengandik, eta ez dute ikasketetan aurrera egiten. Tutoreen iritziz, autoestimua-falta eragiten die horrek adingabeei. Etxeko lanak ongi egin gabe joaten badira ikastetxera, aurrerapenik egiten ez dutela sentitzen dute, eta, ondorioz, beren kideen mailan ez daudela. Horregatik, euskara ikasteko arrazoi nagusietako bat da beren seme-alabak euskara ikasten egotea, horiei lagundu ahal izateko.

*"Nik pentsatu dut ikasten jartzea, euskara ikasten ari den haur bat daukadalako hemen, eta euskarako etxeko lanak ekartzen dituelako etxera, eta ezin diodalako lagundu. (...) Ez dakit nola lagundu erantzuten. Nigana etortzen da "ama, etxeko lan hauek dauzkat" esanez, nola egingo dut... eta hori nire akatsa da, akats bat da (...) gaizki dago (ez jakitea) gaizki dago nire aldetik, batez ere haurrak dauzkagun amei dagokigunez."*

*"Ez dakizu nola lagundu, ez dakizu ezer, ez diot ezer ere ulertzen, hori da arazoa, eta ama guztiok daukagu arazo hori. (...) ez da erabiltzen, gaztekeraz bakarrik hitz egiten da, orduan, zertarako ikasi nahi dut? Nire semeagatik bakarrik."*

*"Semearen ibilbidea osasungarria izan dadin, ezinbestekoa da gurasoen laguntza izatea. Haurra klasera joatean, laguntza jaso badu, autoestimua indartzen da. Seguru ikusten da, nahitaezkoa da. Laguntzak sortzeko orduan, oso etorkin sentitzen naiz, oso atzerritar."*

*"Ezin diegunez lagundu, ondoren klasean galdetzen dutela diote. Ohitura horiek hartzea ez da ona."*

*"Irtentzideak aurkitzeko bideak izatea onuragarria da haurrentzat."*

3. helburua: aztertzea ea erlaziorik badagoen euskal kultura ezagutzearen eta euskara ikasteko interesaren artean.

Askotan esaten da euskal kultura ezagutzeak euskara ikasteko gogoia eragiten duela, eta, atal honetan, hipotesi hori baieztatzeko edo ezeztatzeke ahaleginak egingo ditugu. Jarraian, aztertuko dugu ea erlaziorik badagoen euskal kultura ezagutzearen eta euskara ikasteko interesaren artean.

Euskal kultura ezagututa ere, etorkinek eta errefuxiatuek ez daukate euskara ikasteko interes handiagorik. Esan dezakegu ez dagoela erlaziorik euskal kultura ezagutzearen eta euskararen artean; euskal kultura ezagutzeak ez du esan nahi euskararekiko interes handiagorik edo txikiagorik izango dutenik. Bestalde, gutxi batzuk antzekotasunak ikusten dituzte euskararen eta beren jatorri-hizkuntzen artean, eta horrek euskal kulturara hurbiltzeko interesa eragiten die.

*"Euskara ikasteak ez du eraginik euskal kulturaren ezagutzean."*

*"Hitz berdin ugari daude, nire hizkuntzarekin alderatuta, 108 aurkitu nituen nik, eta 300 georgierarekin alderatuta, bai eta beste batzuekin ere. Antzeko gramatika eta beste elementu batzuk dauzka (...) horretarako etorri naiz, euskara ikastera."*

*"Euskara entzun nuenean Ekuadorko beste hizkuntza bat gogorarazi zidan, hizkuntza indigena, kitxua, hain zuzen ere. Nik ez dakit kitxua. Halere, ikusten dudana da hemen ikastetxeetan eta guzti irakasten dela, eta han ez, han indigenek soilik hitz egiten dute."*

Ikusi dugunez, batzuek ez dakite ezer euskal kulturari buruz Euskal Autonomia Erkidegora etorri baino lehen.

*"Etorri baino lehenago, ez nekien ezer euskal kulturari buruz ETAz gainera, gero ohartzen zara ez dela horrela."*

Askok ez du desberdintasunik ikusten bere kulturarekin alderatuta.

*"Ez zait ezer arraroa iruditu, ez dut desberdintasunik ikusi nire kulturarekiko."*

Esan dezakegu, euskal kultura aipatzen dutenean, bai helduak, bai eta adingabeak ere, kirolen, festen, gastronomiaren eta abarren inguruan mugitzen direla; euskal kultura dibertsioarekin lotzen da.

*"Euskal kulturarekin lotzen dugun lehenengo gauza Olentzero da. Eta ondoren Santa Ageda dator, eta makilak bilatu behar dituzu."*

*"Zenbait erritu daude, baserrikoak bezala, baserriekin eta suarekin lotutako errituak daude."*

*"Euskal kulturak irakatsi zidan pintxoak egiten, eta jaten. Nire ustez sukaldaritza kultura da, bai eta euskal ospakizunak eta jaiak ere (...) Nire seme-alabek dantza egiten ikasi zuten."*

*"Marraski bizidun batzuk ikusten dituzte euskaraz, batez ere txikienak."*

*"Canal Euskadi soilik ikusten dut euskaraz."*

*"Eskolan ezagutu ditut zenbait gauza, hala nola, euskal pilota."*

*"Arrantzale-arropak atentzioa eman dit."*

Gazteen (20 urtetik beherakoak) interesa, beren pare-taldearen arabera da. Pare-taldetzat hartzen dira lagunak eta beren inguruko pertsonak. Horri dagokionez, bi egoera desberdin sortu ohi dira:

- Beren pare-taldeak euskal kultura ezagutzen badu, horrek eragin egiten die, eta euskal kulturarekiko eta euskararekiko interesa sortzen zaie. Halere, kontuan hartu behar da euskararekiko ere interesatzen direla, baina ez dietela horrenbesteko garrantzirik ematen.

*"Hizkuntza funtsezkoa da, lagunartean sartzeko eta egokitze, harremanak eduki ahal izateko."*

*"Erabiltzen da, baina nik, egia esan, ez dakit. Izan ere, jendeak dakien jendearekin hitz egiten du bakarrik (...) Hizkuntza funtsezkoa da, lagunartean sartzeko eta egokitze, harremanak eduki ahal izateko."*

*"Hasieran ez nuen gehiegi entzuten. Baina orain ikusten dut jende askok euskaraz hitz egiten duela familiarekin eta lagun-taldearekin (...) Gero eta gazte gehiago ikusten ditut. Lehen uste nuen jende zaharrak soilik hitz egiten zuela, eta orain gero eta gazte gehiago ikusten ditut egunero euskaraz egiten dutenak, beren lagun-taldearekin bederen."*

*"Batuetan erabiltzen nuen, lagunekin nengoenean."*

- Bestalde, beren pare-taldeak ez baditu ezagutzen ez euskal kultura, ez eta euskara ere, horiek ere ez dute interesik edukitzen.

*"Jendearekin harremanak edukitze ez zait garrantzitsua iruditzen, nik ikusten dudanez, hemen jendeak ez baitu euskaraz hitz egiten, ez dago arazorik elkar ulertzeko."*

*"Nire ustez ez dute hitz egiten euren artean gaztekeraz hitz egiteko ohitura hartu dutelako."*

*"Desagertzeko joera duela ere pentsatu izan dut; ez dakit, gazteek ez dute euren artean hitz egiten."*

Bi egoera horiek aztertuz gero, pentsa dezakegu gazteek beren pare-taldeak dituzten interes berak izaten dituztela.

Aurreko atalean ikusi dugunez, lana da euskara ikasteko motibazio handiena. Asko euskara ikasten hasten dira lanean hala eskatu dietelako, edo bilakaera bat izan nahi dutelako lan hobe bat lortu ahal izateko; izan ere, euskara maila altuko lanekin lotzen dute.

*"Lan mota batuetan eskatzen da euskara... baina atzerritarrak izatean ez daukagu aukera handirik postu on bat lortzeko, ez dugu hizkuntza behar (...) harremanak izateko aukera ematen dizu, hitz egin ahal izateko... lanerako eta beste gauza askotarako."*

*"Lana bilatzeko orduan haserako oztopo bat da. Lan-eskaintza batean euskara eskatzen zuten administrari izateko; orduan, sar zaitezke. Lan duin bat aurkitu nahi baduzu, badu eraginik."*

*"Nik badut nire lanbidea, oso ezaguna ez izan arren. Baina, euskara baneki, nire alorrean lan egin ahal izango nuke euskaraz komunikatzen diren pertsonekin, eta askoz ere hobeto sentituko lirakeke; jendea nirekin gustura senti dadin behar dut."*

ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN  
INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)

*“Lanerako aukera gehiago, lan-alorrean, jendaurreko lekuetan, funtzionarioak (...) iragarkiak ikusten dituzunean egunkarian eta euskara eskatzen dutenean, etorkin izan arren beste aukera bat da.”*

*“Askotan irakurtzen duzu egunkarian euskara eskatzen dutela, aurrekari gisa jartzen dute (...) lanagatik ere interesatzen zitzaidan, euskarazko orrietan irakurri dudalako; egin nitzakeen lanak ziren, baina ez dakit euskaraz hitz egiten. Euskara jakingo banu lan hori emango zidatela esan zidaten.”*

*“Lanagatik, beti bilatzen dudalako zerbait Interneten, eta beti esaten didatelako hobea dela euskara jakitea.”*

Beste askok kontrako iritzia du, edo uste dute ez dela bidezkoa euskara eskatzea lan egiteko.

*“Hemen, gaztelerarekin, ez daukat arazorik lana bilatzeko, edozein lan egin dezaket euskara jakin gabe.”*

*“Alde batetik, garrantzitsua da, eta, bestalde, ez zait ongi iruditzen lanpostuetarako eskakizun gisa jartzea gaur egun, hemengo pertsona askok ere ez baitaki euskaraz.”*

Ondorio gisa, esan dezakegu ez dagoela erlazio handirik espainieradun herrialdeen eta euskal kultura ezagutzearen artean; hau da, jendeak, espainieradun herrialdeetakoak izanagatik ere, ez du zertan interes handiagorik eduki euskal kulturarekiko, ez eta hori zertan gehiago ezagutu ere.

4. helburua: euskara ikasteko interesa zein den jakitea, migrazio-prozesuen arabera.

Migrazio-prozesuaren hasieran, bigarren maila batean egon ohi da euskara, hizkuntza hori ikastea ez baita ikusten lehen mailako behar gisa. Gainera, kontuan izan behar da Euskal Autonomia Erkidegora lehen aldiz etortzen diren atzerritar askok ez dakiela euskal kultura bat dagoenik ere, eta are gutxiago beste hizkuntza bat dagoenik.

*"Lehenengo egunean, nire nagusiarekin lanean ari nintzela, bere aitak "egunon" esan zion, eta nik ez nekien zer zen hori, eta galde egin nion: "Zer da hori?"."*

*"Ez nekien gaztelerarekiko horren desberdina den beste hizkuntza bat zegoenik. Horregatik, D ereduan sartu genituen haurrak, horiek ikas dezaten, eta etorkizun on bat izan dezaten hemen. Nire ustez ikasteko beste bide batzuk izan behar dituzte, hezkuntza-programetatik gertu; Txirri, Mirri eta Txiribiton, adibidez, heroiak dira, lan egiten dute eta ongi transmititzen dute... Hezkuntza-prestakuntzaren aldeko apustua egingo nuke nik, derrigorrezko bide zuzenen aldekoa egin beharrean."*

Garrantzitsua da aztertzea zer faktoregatik erabaki duten migratzea. Elkarrizketatutako pertsonen artean, askok ez zuten aurretik ezagutzen Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate soziokulturala. Beraz, pentsa dezakegu gehienek ez dutela aukerarik eduki euskal kulturara aurretiko hurbilketa bat egiteko. Behin Euskal Autonomia Erkidegora iritsitakoan, bai helduak, bai eta horien seme-alabak ere, nahasita sentitzen dira eskola publikoetan eta pribatuetan zenbait hezkuntza-eredu eskaintzen direla ikustean. Hasiera batean, gertutasunaren edo erakundearen aholkuen arabera erabakitzen da seme-alabak non matrikulatu.

*"Iritsi nintzenean inork ez zidan esan euskara beharrezkoa zenik, nahi al nuen edo ez galdetu zidaten soilik, existitzen zela, baina ez ezinbestekoa zenik, ezta beharrezkoa ere."*

Halere, nabarmentzekoa da hemen bizi diren lehenengo urtean, beren ardurapean adingabeak dituzten gurasoen proportzio handi batek A eredua aukeratzen duela. Bestalde, normalean ez da kontuan hartzen haurren iritzia, beren gurasoek hartutako erabakiak gehien horiei eragingo badie ere.

*"Nahiko handiak ziren jada etorri zirenean, eta pentsatu nuen zail egingo zitzaiela, orain badakit ezetz."*

*"Momentu hartan ez zitzaidan ez beharrezko ez egoki iruditu; orduan ez zitzaidan iruditu, eta orain damu naiz. Hasiera batetik eskolan landu balute, dagoeneko ikasi izango zuten, eta orain, berriz, ezin dira euskarari sartu."*

*"Orain arte, ez dut arazorik eduki euskararekin, ez baita entzuten, arazo bakarra nire semea da, hori da arazo larria."*

Migrazio-prozesua luzatu egiten bada, egoera aldatu egiten da. Hala bada, hasieran euskara ikasteko asmorik ez zuen pertsonak berriz aztertzen du euskarara hurbiltzeko ikastaroren bat egiteko aukera. Erabaki horrek eragina izango du bai helduengan, bai eta horien seme-alabengan ere. Zenbait arrazoik eragin dezake jarrera-aldaketa hori. Halere, oro har, esan daiteke seme-alabei horien hezkuntzako prestakuntzan laguntzeko gogoak zerikusi handia izaten duela erabaki horrekin.

*"Zain nago, joango garen edo ez ikusteko; baina, geratzen banaiz, ikasiko dut, txikiari laguntzeko."*

Ohiko jokaera izaten da hori Euskal Autonomia Erkidegoan lau urtez baino gehiagoz egon diren pertsonengan. Alabaina, jarraian ikusiko dugun eran, helduei dagokienez, nahi hori gauzatzeko aukerarik ez dute izaten gehienetan. Izan ere, baliabide ekonomikoak eta denbora euskara ikastearen kontrako faktore izan ohi dira. Bateriaezintasun ugari sortu ohi dira eguneroko bizitzan, eta ikastaroak egiteko oztopo izaten dira horiek, batez ere egun osoan etxetik kanpo lan egiten duten emakumeei dagokienez. Elkarrizketatu dugun populazioaren artean, askok uste dute ez dagoela benetako laguntzarik euskara ikasi nahi duten helduentzat; ez dago doako ikastarorik, ordutegiak ez dira horien egoeretara egokitzen, etab.

*"Inork ez dit esan ikasi behar denik, baina, halere, nik sentitzen nuen ikasi behar dela, hemengo hizkuntza delako, komunikatzeko. Hurbilketa bat egin behar da lehenbizi, hurbiltzen bazara hobea da; kosta egiten da, baina indartsu izan behar dugu..."*

*"...ez dakit, pertsona bakoitzaren arabera da hori; nik, adibidez, erraz ikasten ditut hizkuntzak. Atsekabetu egin ninduen utzi beharrak, gustura nengoelako; batzuetan erabiltzen nuen, lagunekin nengoenean... berriz ere ikasiko nuke denbora edukiko banu."*

Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkin eta errefuxiatu batzuek oraindik ere ez daukate euskara ikasteko gogorik, ez baitute sentitzen beraiekin zerikusirik duenik hizkuntza horrek. Normalean, migrazio-prozesua epe luzerako izango dela pentsatu ez dutenean, ez dute interesik edukitzen euskararekiko, ez eta euskal kulturarekiko, oro har.

*"Hemen geratu behar baduzu balio dizu, baina hemendik joan edo Kolonbiara itzuli nahi baduzu... euskarak ez dizu balio ezertarako."*

*"Nire ustez, bere iritzia ingelesez azaltzeko gai den euskaldun batek gehiago transmititu ahal izango luke, gauza batzuetarako haserako oztopo baten antzeko zerbait sortzen baita. Irakasle batek ez badu euskaraz hitz egiten, ez du esan nahi irakasle txarra denik. Nire ustez, hiria itxi egiten dugu, egokiak ez diren loturak sortzen ditugu nire iritziz.*

*Pertsonak beste ikuspegi batetik ebaluatzea gustatuko litzaidake... askotan eskatzen dute euskara bete beharreko baldintza gisa. Lasaiago hartu behar da, era naturalago batean. Nik ingelesaren aldeko apustua egingo nuke... akademikoki, ingelesak epe luzeko etorkizunean abantaila handiagoak emango lituzkeela uste dut."*

5. helburua: jakitea euskara ikasteko zenbateko interesa duten, beren ardurapean dauden adingabeen hezkuntza-ereduaren arabera.

Ikerketan zehar egindako elkarrizketetan ikus daitekeenez, beren seme-alabak eredu euskaldunetan (B edo D) matrikulatzen dituztenean sortzen zaie euskara ikasteko interesa beren ardurapean adingabeak dituzten pertsona heldu etorkinei, emakumeei batez ere (horiek egoten baitira denbora gehiagoz seme-alabak zaintzen).

*"Txikia euskarazko ereduari matrikulatuta egoteak motibatu ninduen; aurretik ez neukan interesik."*

*"Gustatuko litzaidake, nire seme-ari laguntzeagatik eta nigaratik, hemen nago, ez al da hala?"*

*"Zaila da, baina liburu bat hartu eta laguntzeko gai izatea behintzat."*

*"Zain nago, joango garen edo ez ikusteko; baina, geratzen banaiz, ikasiko dut txikiari laguntzeko, eta, joaten bagara, txikiak pena emango dit."*

Beren seme-alabak A ereduari matrikulatuta dituzten gurasoei dagokienez, ez da interesik sortzen; izan ere, horien bizitzetan ez da agertu ere egiten. Halere, zenbait kasutan, seme edo alaba bakarria eredu euskaldun batean matrikulatuta edukiz gero, euskara ikasteko behar larria sortzen da, bestela beren seme-alabei etxeko lanekin laguntzeko aukerarik izango ez dutela ikusten baitute.

*"Alaba B ereduari matrikulatu baino lehenago, ez neukan euskara ikasteko interesik."*

*"Orain alaba B ereduari dago, eta euskara ikasi nahi nuke berari lagundu ahal izateko."*

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea nahikoa arrazoi iruditzen zaie euskara ikasteko, hemengo hizkuntza autonomikotzat hartzen baitute, eta, ondorioz, hemengo kulturaren zati bat dela uste dute. Halere, euskara ikasteko interesak ametsa dirudi, etorkizunean gerta litekeen zerbait; ahalko balute egingo luketen zerbait da, baina ez dute uste behar bat denik.

*"Hemen dago eta integratu egin behar du, non bizi den jakin behar du, bai eta hemengo kultura zein den ere eta... moldatu ahal izateko, eta beste gauza askotarako..."*

*"Nahi nuke ikasi, hemen gelditzeko hemengo kultura ikasi behar baituzu."*

Elkarrizketetan dioten bezala, kolektibo horrentzat behar bihurtzen da horien seme-alabak hizkuntza ikasten hasten direnean, bestela, ezin baitiete lagundu.

*"Ez neukan interesik; izan ere, ez zara konturatzen ikasi beharko zenukeenik esperientziaren bat izaten duzun arte. Adibidez, nik ezin diot euskararekin lagundu; fitxa batzuk eman zizkidan eta, "zer da hau?"..."*

*"Euskara ikasi nahi nuke, zenbait gauzatan ezin baitiot lagundu."*

*"Haurrengatik batez ere, "hizkuntza" eta ekartzen didaten guzti hori, eta esaten didate: "ama, honekin zer...?", eta ez dakit nola... nik ezin diot gai horrekin lagundu; agian matematikekin bai, gaztelarekin ere bai, baina euskararekin ezin diot lagundu, ez dudalako ulertzen, eta amorratu egiten nau horrekin ezin laguntzeak."*

*"Ez naiz saiatu, baina euskara ikasten ari den alaba bat daukat... Ikasi nahi nuke, berari lagundu ahal izateko."*

Beste alde batetik, gurasoek euskara ikasteko gogoia badute, seme-alabengan eragina du horrek, eskola-orduetatik kanpo euskara sustatzeari dagokionez. Hori horrela, guraso batzuek diote badagoela euskararekiko interesa eskolatik kanpo, telebistaren bitartez, batez ere. Alabaina, gurasoek beraiek ez dute euskara sustatzen, seme-alabek lantzen dute beren kasa. Halere, ez omen dute gehiegi erabiltzen, ez baita eskolatik kanpora ere erabiltzeko adina entzuten:

*“Canal euskadi”-ko programekin soilik, pailazoak irteten dira... eta horiek diotena errepikatzen du.”*

*“Berari gustatzen zaio (...) hitz batzuk ulertzen ditu, eta berak esaten dit: "Ama, honek honakoa esan nahi du"; berak hitz egiten du, eta pailazoak dioena errepikatzen du. Ikasteko gogo handia dauka.”*

*“Egiten dute bai; irakasleak esan dit euskarazko liburu gehiago irakurri behar dituztela, eta ETBn ikusten dituzten marrazki bizidun guztiak euskaraz dira.”*

*“Nik jartzen diot telebista euskaraz. Nire ustez lagunduko dio ikasten, kosta egiten baitzaio. Ikasteko modu bat da.”*

*“Nire seme-alabek badituzte euskaraz hitz egiten duten lagunak, baina beraiek gazteleraz hitz egiten dute.”*

Hala eta guztiz ere, zenbait zailtasunek eragina dute kolektibo honek euskara ikasteko duen interesean; eragina dute ikasteko gogoan, eta, ikasteko gogorik badago, ikasteko aukeran. Zailtasun horiek honako aldagai hauekin erlazionatuta daude: diru eskasia, denbora falta, hizkuntza bera gutxi erabiltzea eta, espainieradunak ez diren etorkinei dagokienez, gaztelera ez jakitea. Azterketa osoan zehar, aldagai horiek guztiak aipatzen dira etorkinek euskara ikasteko oztopo gisa; faktore horiek, gainera, euskara ikasteko motibazioa kentzen diote kolektibo horri. Emakume etorkinen kolektiboari dagokionez, oztopo horiez gainera, seme-alabak zaintzeko ardura ere badute (eskolara eraman eta bila joan, etxera joan eta jaten eman...); horregatik, are eta denbora gutxiago dute.

Ikastaroak egiteko ordutegi gutxi egoten dira gainera; hori ere denborarekin lotutako oztopoa da, diruarekin erlaziorik ez badu ere. Horrek ezinezko egiten die etorkinei euskara ikastea, laneko ordutegiarekin bat etortzen baitira ikastaroen ordutegiak. Azterketan zehar azaldu den oztopo hori kontuan hartu beharrekoa da. Elkarrizketetako azalpenen arabera, ordutegi malguak izango dituzten ikastaroak behar dira:

*“Niri arratsaldeko ordutegia datorkit ongi. Goizez lan egiten dut; arratsaldeko ordutegiren bat badago, ikasiko dut.”*

*“Neskagatik, neskarekin joan banaiten joango naiz (barrez), eta goizez, noski, arratsaldez haur guztiak etxean edukitzen ditut eta.”*

Bestalde, zailtasun horiek eragina dute, baita ere, seme-alabei eskola partikularrekin laguntzeari dagokionez. Bi aldagaigatik gertatzen da hori batez ere: alde batetik, diruagatik, eta, beste alde batetik, haurren egoeragatik beragatik. Izan ere, integrazioagatik eta eskola-atzerapenagatik batez ere, eskola partikularrak hartu ahal izatea zaila da, bai aitarentzat/amarentzat, bai eta haurarentzat ere:

ETORKINEK ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN  
INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)

*"Zentro batean hasi nahi zuen euskara ikasten, baina ikasten nahikoa ordu ematen zituen bestela ere; berez, goizeko 7:15etik gaueko 9etara egon ohi da ikasten, eta itxaroteko esan nion."*

*"Ahaleginak egin ditut nire semea euskara-eskoletara joan dadin eskolaz kanpo, baina oso urruti da, eta garestia gainera... eta ezin dut."*

Espainieradunak ez diren etorkinei dagokienez, gaztelera ez jakiteak ez dio laguntzen euskara ikasteko interesari; derrigorrez jakin behar da gaztelera lehenengo, ondoren euskara ikasi ahal izateko. Halere, espainieradunak ez diren etorkinen familia askok eredu euskaldunetan matrikulatzen ditu seme-alabak, horrek zailtasunak sorraraziko baditu ere, hala nola, etxeko lanetan ezin lagundu izatea, eta, batzuetan, baita hitz egitean ezin ulertu izatea ere:

*"Lehenengo, gaztelera ikasi nahi dut ongi."*

*"Nik biek ikasi nahi ditut, baina poliki; lehenengo bat, eta gero bestea."*

*"Nik ez nekien gaztelera; eta biak batera ez."*

*"Nik, lehen, ez nekien gaztelera hitz egiten. Eta hemen bizi nahi dut, euskalduna izan nahi dut. Lehenengo hitz egiten ikasi behar dut. Ez badakizu hitz egiten, nola komunikatuko naiz ba inorekin."*

*"Ikastaroak egin behar ditut, noski, baina gazteleraazkoak. Gaztelera hobetu behar dut, euskara ikasteko gaztelera jakin behar baita, euskara azaltzeko, eta guk gaztelera ongi ulertzen ez badugu, ezin dugu euskara ikasi."*

*"Ez dut inoiz interesik izan, nola egingo dut ba ikastaro bat gaztelera jakin gabe."*


Laburbilduz, esan daiteke beren seme-alabak B edo D ereduetan matrikulatuta dituzten gurasoek interesa dutela euskararekiko, emakumezkoek batez ere; baina hori ez da nahikoa euskara ikasten has daitezen, batez ere, ez daukatelako ez denborarik, ez eta dirurik ere. Izan ere, etorkin gehienek bizimodu gogorra dute. Etorkin izateak dakartzan arazo sozialez, legezkoen eta ekonomikoek gainera, lanegun luzeak izan ohi dituzte, eta horrek denbora kentzen die; gainera, lanean ez daudenean, seme-alabak zaindu behar izaten dituzte. Egoera horiengatik guztiengatik, euskara ikasteko laguntza gutxi jasotzen dituztelako, bertako jendeak ere euskara gutxi erabiltzen duelako, eta gizarteak gutxi sustatzen duelako, etorkinen kolektiboak euskara ikasteko duen interesa murriztu egiten da. Halere, horiek interesa erakusten dute; ikastea garrantzitsua dela uste dute, euskal gizarteko kulturaren oinarritzko elementutzat hartzen baitute hizkuntza.

## II. Dimentsioa - Nerabe eta aurrenerabe etorkinek eta errefuxiatuek euskararekiko duten interesa eta egiten duten erabilera.

6. helburua: jakitea zein den adingabe-kolektiboaren errealitate sozio-demografikoa, beren tutoreek euskara ikasteko duten interesarekin eta matrikulatuta dauden hezkuntza-ereduarekin erlazionatuta.


Etorkinek euskara ikasteko eta erabiltzeko prozesuari dagokionez, ikusi dugu oso desberdina dela adingabeak dituzten familia etorkinen eta errefuxiatuen egoera, bakarka migratzen dutenenarekin alderatuta. Familien kasuistika berezia da; familiak epe luzeko migrazio-prozesuak antolatzen dituztelako, adingabeak eskolatu egin behar direlako edo eta aisialdi mota batzuk euskarazkoak izaten direlako.

Oro har, beren kargura adingabeak dituzten pertsonen kolektiboa nahiko egonkorra izan da azken urteotan, eta CEAR-Euskadiko erabiltzaile guztien %10aren ingurukoa izan da. Nabarmendu ziren urte bakarrak izan ziren 2004, familiak %14 baino gehiago izan ziren, eta 2006, etorkinen eta errefuxiatuen %7,19ak soilik zituen adingabeak bere ardurapean.




Familiei dagokienez, interesgarria da aztertzea gurasoek eta adingabeek zer jarrera duten euskararekiko interesari eta euskara ikasteari dagokienez. Beren kargura adingabeak dituzten etorkinek euskararekiko duten interesari dagokionez, nolabaiteko joera bat ikusi dugu; beren kargura adingabeak dituzten pertsonen interes gutxiago izaten dute euskara ikasteko, bakarka migratzen dutenek baino.

Bakarka bidaiatzen dutenei dagokienez, gehienek ez dute euskara ikasteko interesik; gizonen %40,38ak eta emakumeen %48,92ak soilik du euskara ikasteko gogoia. Gainera, bi kolektibo horien %1 baino gutxiago ari da euskara ikasten.



Bestalde, beren kargura adingabeak dituzten pertsonen artean, ikus dezakegu euskara ikasteko interesa dutela aitortzen duela gizonezkoen gehiengoak, bai eta emakumezkoen gehiengoak ere (%50,55 eta %57,36, hurrenez hurren), eta gizonezkoen %3,30 euskara ikasten ari dela.




Garbi dagoena da, bi kasuetan ere, emakumezkoek interes handiagoa dutela euskara ikasteko gizonezkoek baino. Horren zergatia da emakumezkoen migrazioa adingabeen migrazioarekin lotuta egon ohi dela eta, bai adingabeak helmuga-herrialdean daudelako, edo baita familia bateratzeko asmoa dutelako ere, emakumezkoek enpatia handiagoa izaten dute seme-alaben bizitza sozialarekin eta hezkuntzarekin.

Lantzen ari garen unibertsoa CEAR-Euskadiko erabiltzaileak dira; horiek, erakundeko langileen laguntzaz, gizarteratze-prozesu batean daude. Hori dela eta, erabiltzaileen iritzi edo ekintza batzuk nahiko desberdinak dira etorkinen eta errefuxiatuen kolektiboko gainerako pertsonenekin alderatuta. CEAR-Euskadiko kolektiboaren errealitatearen eta


Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatearen artean zer desberdintasun dauden aztertu nahi izan dugu. Horretarako, alderaketa egin dugu honakoaren artean: alde batetik, erakundeko erabiltzaile diren pertsonen familietako matrikulazioak, hezkuntza-ereduaren arabera; eta, beste alde batetik, pertsona etorkinen matrikulazioen kopuruak 2006-2007 ikasturtean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako datuen arabera.

Ikus dezakegunez, Bizkaiak eta EAEk antzeko banaketa dute: proportzio handiena A ereduan (%38,84 eta %44,14, hurrenez hurren), eta %30, gutxi gora-behera, B eta D ereduetan. CEAR-Euskadiko datuak, berriz, oso desberdinak dira. Erakundera jo duten pertsonen erdiak baino gehiagok (%51,77) B ereduan matrikulatu ditu adingabeak, %24,82k A ereduan, eta %23,40k D ereduan. Gurasoen iritziz B ereduak aukera ona da, euskara-maila on bat lortzeko aukera emango baitie adingabeei, baina D ereduak bezain aldaketa handiari aurre egin beharrik gabe.




Hezkuntza-ereduen bilakaera aztertuz gero, CEAR-Euskadira jo dutenen kargura dauden adingabeei dagokienez, ikus dezakegu mantendu egin dela joera hori denboran zehar, baina aldaketa garrantzitsu batzuk ere izan dituela. Horrela, A eta B ereduaren artean etengabeko "lehia" egon dela nabarmentzen da. 2004an, kolektibo honetako adingabe gehienak (%60,38) A ereduan matrikulatuta zeuden; 2006an, berriz, joera aldatu egin zen, eta adingabeen %56,48 B ereduan matrikulatuta zeuden.

Azpimarratu nahi dugu beren ardurapeko adingabeak D ereduan matrikulatzen dituzten tutoreen proportzioak gora egin duela pixkanaka, matrikulazio gutxien dituen ereduak bada ere; 2004ko %13,21etik, %26,67ra pasa da. Beraz, esan dezakegu CEAR-Euskadiren laguntza jasotako pertsonak joera handiagoa dutela bere ardurapeko adingabeak eredu euskaldunetan matrikulatzeko, B ereduan batez ere, A ereduaren kaltetan.




Lehen ere aipatu dugunez, Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate soziolinguistikoa hizkuntza gutxituak dituzten beste eskualde batzuetakoaren antzekoa da; horregatik, aztertu nahi izan dugu ea hizkuntza gutxituren bat zekiten pertsonek beren ardurapeko adingabeak eredu euskaldunetan matrikulatu dituzten. Ikusi dugunez, hizkuntza gutxituak dakizkitenen eta ez dakizkitenen kolektiboen artean badaude desberdintasunak, baina ez dira oso nabarmenak. Halere, ikus daiteke hizkuntza gutxituren bat dakitenek joera handiagoa dutela beren ardurapeko adingabeak B ereduari matrikulatzeko (%70,59), A ereduaren kaltetan dudarik gabe (%5,88); D ereduari dagokionez, ez dago aldaketa handirik.



Gurasoen edo tutoreen ikasketa-maila eta horien ardurapeko adingabeen matrikulazioen arteko erlazioa aztertzen badugu, erlazio handirik ez dagoela ikus dezakegu.


Horrela, bigarren hezkuntzako ikasketak (%59,19ak derrigorrezkoak ez den bigarren hezkuntzako ikasketak, eta %66,67ak derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak) eta lehen hezkuntzako ikasketak (%56,36) dituzten pertsonen erdiak baino gehiagok B ereduan matrikulatu ditu bere ardurapeko adingabeak; lizentziatura duten pertsonen gehiengoak (%53,33), berriz, A ereduan matrikulatu ditu. Halere, banaketa horiek halabeharrezkoak dira.



CEAR-Euskadiko erabiltzaileen ardurapean dauden adingabeen matrikulazioen %83,64 Bilbon kokatzen dira, eta beste bost udalerritan biltzen dira matrikulazio guztien %92 baino gehiago. Horregatik, interesgarria da aztertzea nola banatzen diren Bilbon, Basaurin, Barakaldon, Santurtzin eta Erandion bizi diren pertsonen matrikulazioak.


Udalerrri horietako lautan B eredia nabarmentzen da; matrikulazioen erdiak baino gehiago B ereduan egiten dira Erandion, Basaurin, Bilbon eta Santurtzin (%60, %57,14, %52,54 eta %50, hurrenez hurren). Barakaldoko egoera desberdina da; D ereduan egin da matrikulazioen %83,33, B ereduan %16,67, eta A ereduan, berriz, bat ere ez. Bukatzeko, Santurtziko datuak azpimarratu nahi ditugu: matrikulazioen %50 A ereduan egin dira. Desberdintasunak egon arren, esan behar da banaketa halabeharrezkoa dela, ez baitago erlazio handirik aldagai horien artean.

ETORKIN ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN INTERESAREN AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)



D eredia da *a priori* zailena ematen duena etorkinentzat, baina azken urteotan gora egin dute eredu horretako matrikulek. Horregatik, aztertu dugu zein udalerritan egiten diren euskarazko matrikulazioak.

Udalerri oso gutxitan egin dira matrikula guztiak D eredian, eta, gainera, guztirako matrikulazio-kopurua oso txikia da (matrikulatutako adingabe 1 edo 2). Udalerri horietako hiru (Lezama, Mungia eta Durango) euskaldunak dira Eustaten datuen arabera; Etxebarri eta Karrantza, berriz, gazteleraz hitz egiten da. Tutoreek, bertako jendeak euskara erabili ohi duela ikusten badute, eredu euskaldunetan matrikulatu ohi dituzte adingabeak; hori gertatu da, hain zuzen ere, Lezaman, Mungian eta Durangon D eredian egindako matrikulazioei dagokienez, edo Bermeon eta Iurretan B eredian egindakoei dagokienez.



## 7. helburua: jakitea nola eragiten duen eskolatzeko-moduak eskolatzeko hezkuntza-ereduan.

Azterketa honetan, eta egindako elkarrizketen bitartez, ikusi dugu zenbait faktorek eragiten dutela adingabeak eskolatzeko unean: alde batetik, kanpoko faktoreek, etxetik gertu egoteak batez ere, eta, beste alde batetik, barne-faktoreek, hala nola, haurraren adinak (lehenasuna ematen dio A ereduari).

Kanpoko faktoreei dagokienez, gehienetan eragiten duen faktorea izaten da ikastetxea etxetik gertu egotea. Guraso askok gertueneko eskolan matrikulatu behar izaten dituzte seme-alabak, bertan eskaintzen diren ereduak direnak direla ere, gustuko izan edo ez:

*"Gertuen zegoen ikastetxea zen, bai etxetik, bai eta lanetik ere, eta gero aldatu egin ziren, Deustura joan ginelako bizitzera."*

*"Ba ni mugitu nintzen, eta udaletxera joan nintzen, eta erroldak atera nituenean esan zidaten "hemen honako ikastetxe hauek dituzu", eta gertuen nituen ikastetxeak erakutsi zizkidan. Gertuen nuen ikastetxera joan nintzen lehenengo, eta han D eredu soilik zeukatela esan zidaten, eta hori ez; behekorra joan nintzen ondoren, eta esan zidaten han B eta D zeudela, eta han bai, B eredu."*

*"Guk pentsatu genuen txikiak gugandik gertuena zegoen ikastetxean ikas zezala, Sarrikoko erlijiosoan ikastetxe batean; hor eskola guztiak euskaraz ematen dira, eta txikiak ez zuen nahi. (Zaharrenak) euskaraz ematen ditu eskola guztiak, baina txikiak ez zuen nahi."*

Hezkuntza-ereduei buruz ikastetxeek ematen duten informazioari eta aholkularitzari dagokionez, mota askotako erantzunak eman dituzte. Batzuetan, ikastetxeek eta irakasleek ongi aholkatzen dituzte kolektibo honetako pertsonak, baina, beste batzuetan, etorkinek beren kasa bildu behar izan dute informazioa, bai ezagunen edo lagunen bidez, bai eta kalean galdetuz ere:

*"Haurrak eskolan izenpetzerakoan jakin genuen ereduak zeudela."*

*"Nahikoa informazio eman ziguten, bai; gurean B eta D eredu soilik eskaintzen dira, ez dago A eredurik."*

*"Ikastetxean oso ongi; eskolak nola ematen zituzten erakutsi zidaten, eta, hobeto uler zezan, laguntza-eskolak jaso beharko zituela azaldu..."*

*"HHEn egon nintzenez, nik banekien zer eredu zeuden."*

*"Ni ikastetxe baten bila nengil, eta kaleko jendeak informatu ninduen."*

Barne-faktoreei dagokienez, haurraren adina da gehienetan aipatzen den faktorea, eta horren arabera erabakitzen da zein eredutan matrikulatu, A eredu, edo, aitzitik, eredu euskaldun batean, hala nola, B edo D eredu.

Horri dagokionez, joera garbia ikusten da; adingabea zenbat eta helduagoa izan, orduan eta joera handiagoa dago hori A eredu edo B eredu matrikulatzeko. Halere, B eredu matrikulatu dituztenek esan dute A eredu eskaintzen zuten ikastetxe gutxi daudelako egin zutela horrela. Zenbat eta gazteagoa izan adingabea, orduan eta joera handiagoa dago hori B edo D eredu matrikulatzeko.

Bestalde, adingabeengan beraiengan ere ikusten da joera garbi bat; helduagoak diren heinean, betebeharrak gisa hartzen dute euskara ikasi beharra. Baina txikienean, berriz, naturalago bizi dute euskara ikastea, ikasketen beste zati bat da.

Eskolan matrikulatzeko unean adingabeak duen adinaren arabera dira joera horiek. Ikasteko zailtasunarekin lotuta dago aldagai hori; hau da, zenbat eta helduagoa izan, orduan eta zailagoa da adingabea B edo D ereduaren matrikulatzea, horren ikaskuntza-kalitatea murriztu egiten baita, beste hizkuntza batean ikasteak dakartzan zailtasunengatik.

Gainera, zenbait adingabek maila baxuagoko ikasketak izaten ditu hona helduz. Horrek zaildu egiten dio ikastetxera moldatzea, eta horren ikasketen kalitatea okerragoa izaten da. Horregatik, ez dakien hizkuntza bat gehitzeak, lagundu beharrean, egoera okertzen du.

Egoera horiengatik, gurasoek A ereduaren matrikulatzen dituzte adingabe helduenak, eta, batzuetan, A eredurik ez badago, B ereduaren. Bestalde, gerta daiteke, baita ere, hasiera batean seme-alabak eredu euskaldun batean sartzea, eta, denbora bat pasata, aldatu egin behar izatea, adingabeak ikasteko arazoak dituelako.

*"Gure auzotik gertuen dagoen ikastetxean euskarazko eskolak ematen dira soilik. Hor matrikulatzea erabaki nuen, baina oso zaila da; izan ere, nire semeak gaztelera ere ez zekien ia (...) Orain beste hizkuntza batean hastea oso zaila da nire ustez, eta berak, ikasketak egiteko gai izan behar du behintzat."*

*"Bere ikasketa-maila oso baxua da. Izan ere, Kolonbian ia urte eta erdi egon zen ikasi gabe, eta, hona etortzean, galdu egiten da. Hemengo mailara iristen den artean, nik ez dut euskarazkoan (eredua) sartu izan nahi, zailago bihurtzen da eta."*

Gurasoek lehentasuna ematen diote gaztelerrari; hori da, haiz zuzen ere, eredu euskaldunetan, eta D ereduaren batez ere, ez matrikulatzeko arrazoi nagusia. Etorkin gehienek uste dute euskarak mugak dituela, eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ez duela ezertarako ere balio, eta, ondorioz, garrantzi handiago ematen diote gaztelerrari.

*"Niri ez zait ongi iruditzen D ereduarena; nik nahi dut nire semeak euskara ikastea, baina baita gaztelera ere. Hemen euskarak balio du, behar duzu, funtsezkoa da, baina hemendik kanpora ez."*

*"Nik etxearen ondoan daukat Zubaranbarri ikastetxea, baina D eredia soilik eskaintzen dute, eta ez ditut hor matrikulatu; biak ikas ditzaten nahi dut."*

Beraz, esan daiteke bi aldagaik eragiten dutela batez ere adingabea eredu batean edo beste batean eskolatzeko orduan: etxetik hurbil egoteak, eta haurraren adinak. Hori horrela, bi joera garbi bereizten dira:

- Aukera gehiago daude etxetik gertuen dagoen ikastetxean matrikulatzeko, gustuko izan edo ez. Denbora pasa ahala, eta, eredu euskaldun batean matrikulatuta egon ondoren, adingabeak ikasteko arazoak baditu ulertzen ez duelako, gurasoek ikastetxez edo eredu aldatzeko aukera aztertzen dute.
- Adingabe helduenak A ereduaren matrikulatu ohi dira, edo B ereduaren (A eredia aurkitzen ez badute). B ereduaren matrikulatuta daudenei


dagokienez, euskara ikastea betebeharrak gisa ikusten dute. Adingabea gazteagoa den heinean, gurasoek eredu euskaldunetan matrikulatu ohi dute hori, eta adingabea sozializatzeko tresna bihurtzen da euskara, naturaltzat hartzen dute. Euskal Autonomia Erkidegora iristean adingabe helduenek topatzen duten ikaskuntza-kalitatearekin eta dituzten ikasteko zailtasunekin erlazionatuta dago joera hori.

8. helburua: jakitea nola eragiten duten adingabeen ikastetxeetako ezaugarriek ghettoen sorreran.

Hasteko, ghetto kontzeptuak esanahi anbigua izan dezake. Azterketa honetan, honakoa esan nahi du: ikastetxeetan sor daitezkeen adingabe-talde jakin batzuk.

Ghetto horiek homogeneoak izan ohi dira; hau da, kide guztiek antzeko ezaugarri sozio-demografikoak izan ohi dituzte. Beste alde batetik, ez dira itxiak izaten, norbanakoak sartu edo irten egin daitezke taldetik. Azkenik, aurretik ezarritako arau etikoak betetzen dituzte, eta ez daude gizartetik kanpo.

Ikasle atzerritarrak nola taldekatzen diren jakiteko, CEAR-Euskadiko erabiltzaile guztiek erantzundako galdera-sortak aztertu ditugu. Horrela, ikus daitekeenez, horiek B ereduan taldekatzen dira, eta Bilbo, Barakaldo eta Getxo udalerrietan. EAeko datuekin alderatzen baditugu datu horiek, desberdintasunak nabarmentzen dira. Udalerrri horietan taldekatze masiborik ez badago ere, ikasle atzerritarren proportzio handiagoa dago hiru udalerrri horietan (%22,65 soilik), eta bertakoak %6,12 besterik ez dira. Beste alde batetik, atzerritarrak eredu desberdinetan taldekatzen dira udalerrriaren arabera. Bilbon, D ereduan taldekatzen dira; Barakaldon, B ereduan; eta Getxon, A ereduan. Bertako populazioa, berriz, D ereduan taldekatzen da batez ere; Bilbon, adibidez, matrikulazioen %66,47, hain zuzen ere.



Portzentajeak aztertuz gero, ikus dezakegu, Bizkaian, ikasleen erdiak baino gehiago D ereduan taldekatzen direla, eta gainerako ereduak ere antzeko egoera izaten dutela (%22,24 A ereduan, eta %22,88 B ereduan). Bestalde, Bizkaiko etorkinei dagokienez, ez dago diferentzia handirik ereduaren artean; halere, gehienak A ereduan taldekatzen dira (%44,14 A ereduan, %25,84 B ereduan, eta %30,007 D ereduan).

Bukatzeko, CEAR-Euskadiko erabiltzaile diren etorkinak aztertuz gero, erdiak baino pixka bat gehiago B ereduan taldekatzen dira; A eta D ereduak baxuak eta oso antzekoak dira (%21,18 A ereduan, eta %28,07 D ereduan).

Batez ere A eredia mantentzen duten ikastetxeetan, adingabe atzerritar gehiago daude B eta D ereduak ezarri direnetan edo ezartzen ari direnetan baino. Gustura sentitzen dira

eredu horretan, eta ez dute aldatu nahi; izan ere, arazo gutxiago dituzte bertako adingabeek harremanak izateko, gazteleraz komunikatzeko aukera dutelako. B eta D ereduak baino errazagoa iruditzen zaie A eredia.

*"Ia denak atzerritarrak dira nire gelan (...) bi edo hiru dira hemengoak."*

*"Beretzat oso zaila da, eta horregatik dago gaztelerazko ikastetxe batean."*

*"A eredia hobea da nire institutuan, irakasgai batzuetan behintzat. Nire ustez hobea da A eredia; D ereduan, irakasgai batzuk oso zailak dira, hala nola, filosofia."*

*"Gustura nago horrela, eta horrela egoten jarraitu nahi nuke ikasketetan ez nahasteko; oso zaila da."*

*"Euskara irakasten digute irakasgai bezala, baina, nire ustez, ez litzateke ona izango irakasgai gehienak euskaraz irakastea, hitz egiten ez dudanez, gaiak zailago egingo litzaizkide eta."*

*"Pertsona batzuek euskara erabiltzen dute kalean, baina, hitz egiterakoa, neskek ez dute erabiltzen; egia esan, ez daude ados B eredia ezartzearekin."*

Batzuk prest egongo lirateke pixkanaka eredu euskaldun batera aldatzeko, lan jakin batzuetarako beharrezko iruditzen zaie eta.

*"Ereduz aldatu nahi nuke pixkanaka; izan ere, lan batzuetarako euskara behar da, eta nik gustuko dut hizkuntzak ikastea."*

Bestalde, eredu euskaldunak zailak iruditzen zaizkie, euskara zaila iruditzen zaielako. Bestalde, ez lukete horrenbesteko erraztasunik edukiko bertako adingabeekin harremanetan jartzeko, hizkuntza ez jakiteagatik, hemengoek ere gehiegi erabiltzen ez badute ere. Gainera, bertako beren kideekin alderatuz gero, beren burua desberdin ikusten dute. Tutore batzuek honako hau ere esaten dute: adingabeek euskaraz ikasiz gero, ez liratekeela horiei ulertzeko gai izango.

*"Nik ez nuen nahi izan euskara hartzerik, zaildu egingo zelako."*

*"Ez nuke aldatuko, askoz ere zailago izango litzatekeelako niretzat orain ikastea, eta, gainera, ez dut uste itzulpenik egingo liguketenik. Hala uste dut nik, inoiz gertatu zait eta."*

*"Klase bat euskara hutsean ez, gehiegi da."*

*"Bai, ikusten ditut desberdintasunak: nik baino hobeto hitz egiten dute, gehiago ulertzen dute, eta irakaslearekin gehiago hitz egiten dute."*

*"Jende guztiak ez dauka hizkuntzak ikasteko erraztasun bera, eta, nire ustez, hori arazo bat da. Horregatik, ez zait ongi iruditzen euskara jakitea eskatzea."*

*"Ez nuen euskara behar. Eskolan ikas zezatela, eta ezer jakin gabe zetozen gainera; orain badakit zailtasuna dela hori." "*

*"Ez nuke B ereduan egon nahi, zailagoa da."*

Halere, batzuk aldatzeko prest egongo lirateke behin euskara ikastitakoan, eta asko ari dira pixkanaka ikasten, lan batzuetarako garrantzitsua delako, eta euskal kultura bereganatu behar dutela uste dutelako.

*"Ikasten badut, eta menperatzen badut, aldatuko nintzateke guztia euskaraz irakasten duten eredu batera, baina bestela ez."*

*"Asko kostatzen zait ikastea, baina pixkanaka ari naiz."*

*"Guztiz integratuta egotea, Euskal Autonomia Erkidegoari, euskarari eta guztiari dagokionez."*

*"Euskarazko ereduari matrikulatu nuen nire semea beragatik, garrantzitsua delako jakitea, euskaldun bat bezala heziko delako, eta jakin egin behar duelako; ez lanagatik bakarrik, baita euskaldun sentitzeagatik eta izateagatik ere."*

Aldiz, B ereduari daudenetako batzuek A eredura aldatu nahi lukete. Horiek diotenez, aldaketa hori eginez gero hobeto integratuko liriateke, bi arrazoigatik batez ere: hizkuntza ez litzatekeelako arazo izango, eta, lehen esan dugun bezala, A ereduari adingabe atzerritar gehiago daudenez, jende gehiago egongo litzatekeelako egoera berean. Eta, beste alde batetik, A ereduari, beren ikaskuntza-kalitatea hobea izango litzatekeela diote, gazteleraz ikasiz gero hobeto, azkarrago eta arazorik gabe ikasiko luketelako.

*"Poztu nintzen aldatu gintuztenean, guztia gazteleraz zelako, eta hobeto ulertzen dudalako. Gainera, integratuago sentitzen naiz, ia denak Bolibiakoak direlako, eta elkarri laguntzen diogulako."*

*"Eskolaz aldatzeko eskatu zidan berak, atsedenetan ez baitzen gustura egoten."*

*"Nik konbinatua izatea nahi nuen, bestela Ikastola zegoelako, eta ez, eskola-atzeratasunarekin datorrelako mutila, eta horrek zera ekarriko luke... euskara ikas dezan nahi dut, baina ez guztia euskaraz ikas dezan, bestela nahastu egingo litzateke eta."*

B edo D ereduari daudenetako askok diote A ereduari ez dela guztiz zuzena, zer edo zer euskaraz jarri beharko luketelako, eta uste dute hobea dela B edo D ereduari matrikulatzea.

*"Nire ustez A ereduari euskaraz jarri beharko lukete zerbait, ez da ona guztia gazteleraz jartzea."*

*"Nire ustez B ereduari askoz hobea da, mistoa delako."*

*"Nire semeak D eredura pasa nituen, hemen bizi garelako."*

Bestalde, euskara ikastearekin bat datorren jendeak uste du errazagoa dela euskara ikastea haurrak txikiak direnean, helduagoak direnean baino.

*"Etortzen diren atzerritarrentzat, nire ustez, ez da beharrezkoa, baina eskolaurrera datozenentzat bai."*

*"Etorri zenean, helduegia zen euskara ikasteko."*

*"Seme bat daukat, eta ekarri egin behar dut; euskarazko ereduari sartuko dut. Haurren arazoa da 12 eta 13 urterekin datozela, eta helduegiak direla ikasteko. Gazteagotan etortzen badira, ez daukate arazorik ikasteko, baina gure adinean zailegia da dena."*

*"Hasiera batean eskolan hasi balira, dagoeneko jakingo zuten."*

*"Jaiotzean eskolan sartu nuenez, ikasi du esaldi batzuk euskaraz esaten."*

A ereduari taldekatzen diren adingabe atzerritarrek uste dute erosoagoa dela beren ikasketetarako (gaztelerazko ikaskuntza hobeto doakie), bai eta beren harreman sozialetarako ere (eredu horretako ikasle asko atzerritarrek dira baita ere). Halere, ezin da esan ikastetxeetan ghettoak sortzen direnik.

Adingabe atzerritarrek, hasieran ezaugarri sozio-demografiko berak dituen jendearekin elkartzeari kostatzen bazaie ere (batzuetan, hizkuntzarekin, integrazioarekin edo identifikazioarekin lotutako arazoengatik), denbora pasa ahala, mota guztietako pertsonekin elkartu ohi dira.

*"Hemengo jendearekin irteten naiz; lehen kolonbiarrekin irteten nintzen, edo nire lehengusuekin, aurretik ere harremana genuelako."*

*“Kideekin oso ongi, gaztelera hitz egiten dugu, eta elkarri laguntzen diogu (...) kanpokoekin elkartzen naiz gehiago, identifikatuago sentitzen naiz (...) Baztertu samar sentitu nintzen, ez zigutelako jolasten uzten, euren artean hitz egiten zutelako eta euren artean geratzen zirelako; baztertu egiten gintuzten.”*

*“Hasieran nire hizkuntza hitz egiten zuen jendearekin eduki nahi nuen harremana, baina ezin izan nuen hori egin, ez nuelako jendea ezagutzen. Aurrerago nire hizkuntza hitz egiten zuen jendea ezagutu nuen, eta lagundu egin zidaten, eta aurrerago, ikasi nuenean, jende guztiarekin erlazionatzen hasi nintzen.”*

*“Espainiarrekin eta kolonbiarrekin elkartzen naiz, eta ez daukat arazorik (...) pertsona batek hizkuntza jakin bat hitz egiten badu, normala da hizkuntza bera hitz egiten dutenekin erlazionatzea.”*

*“Ez daukat arazorik guztiarekin harremana izateko, guztiarekin elkartzen naiz; baina nire lagun batzuek arazoak dituzte erlazionatzeko, gaztelera ez dakitelako.”*

9. helburua: jakitea zer laguntza dituzten adingabeek euskara ikasteko: laguntza sozialak edo eskola-laguntzak.

Gaur egun, teknologia berriei esker, adingabe atzerritarrek erraztasun handiagoa dute mota askotako laguntza jasotzeko, eta euskara hobeto eta azkarrago ikasteko metodoak dauzkate. Azkeneko helburu honetan, adingabeek euskara ikasteko zer laguntza jasotzen dituzten azaltzen saiatuko gara, bai eta horietara nola iristen diren ere.

B eta D ereduak adingabeek laguntza-eskolak behar izaten dituzte zenbait irakasgaitan, lehenengo urtean batez ere. Euskara oso zaila egiten zaielako gertatzen da hori, eta ezin dutelako gainerako kideen abiadan ikasi; ikaskuntza-atzeratasuna eragiten die horrek.

*"Eskolak jaso nahi nituzke, zaila egiten baitzait ikastea."*

*"Ikastetxetik kanpo eskolak eman behar dituzte hori ikasteko."*

*"Nire ustez, haurrek eskola gehiago behar dituzte, gehiago behar dute; arratsalde, asteburuetan, eskola gehiago behar dituzte..."*

Ikastetxeek, beren aldetik, ez diete laguntzarik eskaintzen adingabeei; ez dituzte eskolak eskaintzen ikastorduz kanpo, eta etorkinek ez dute baliabiderik beren kasa laguntza-eskolak ordaintzeko. Laguntzarik jasotzen ez dutenez, adingabe etorkinek, batzuetan, eurentzako eskola espezifikoak eskatzen dituzte, baina irakasleek ez dituzte ezagutzen etorkinen alfabetizaziorako metodologiak, eta ezin dituzte eskolak eman. Horregatik, askotan, beren kasa moldatu behar dute euskara-ikastaroak egiteko, eta askok arazoak izaten dituzte (denbora falta, adibidez).

*"Nik euskara ikasi nahi dut, baina ez dago euskara ikasteko eskolarik."*

*"Ahaleginak egin nituen nire semea euskara-eskoletara joan zedin eskolaz kanpo, baina oso urruti da, eta ezin dut."*

*"Galdetu nuen ea ikasteko ikastarorik ba ote zegoen."*

*"Uste dut bi ikastaro egin zituela; udalak diru-laguntzak ematen zituen, eta hiru hilabetekoa zela uste dut."*

*"Nik ikastetxean entzun nuen Portugaleteko HHEn euskara-ikastaroak ematen zituztela."*

Batzuetan, jendeak ez du urte bete irauten, eta A eredura aldatzea erabakitzen dute, hobeto integratzeko, eta ikaskuntza-kalitatea hobetzeko.

*"Nik aldatu egin nahi nuen, eta hori esan nien nire gurasoei; izan ere, ez nuen ezer ikasten."*

*"Euskara hutseko eredu bat kaltegarria da, nire alabak A eredura pasa ziren, ez baitzekiten gaztelera idazten ere."*

*"Poztu nintzen aldatu gintuztenean, guztia gaztelera zelako, eta hobeto ulertzen dudalako. Gainera, integratuago sentitzen naiz."*

Beste batzuetan, pixkanakako eskolatze euskalduna egiten da. Lehenengo urteetan A ereduan edo, agian, B ereduan matrikulatzen dira, eta, aurrerago, eta behin gaztetxoak

hezkuntza-sisteman integratuta daudenean, eredu euskaldunago batera pasatzeko erabakia aztertzen dute.

*"Eskolak zailak dira, hau bere lehenengo urtea baita (...) orain ez dizkiot arazoak sortu nahi, ikasturte bat edo bi gainditzen dituen arte."*

*"Lehenengo urtea zenez, euskararik gabe matrikulatu nituen."*

*"Ikasturteak aurrera egin ahala, eta irakasgaiak ezagutzen doan heinean, agian beste eredu batera pasa ahal izango du; oraingoz ez nuke euskarazko eredu batean sartuko."*

B eta D eruedetan ikasten duten adingabeek, orokorrean, ez dute euskara erabiltzen beren bizitza sozialean. Ohituraz, erosoago sentitzen dira beren pare-taldearekin gazteleraz hitz eginez, eta ez dute eredu euskaldun bat ezartzerik nahi.

*"Lagunekin ez, guztia gazteleraz."*

*"Atsedenean haur guztiek gazteleraz hitz egiten dute, errazagoa delako."*

*"Nire seme-alabek badituzte euskaraz hitz egiten duten lagunak, baina beraiek gazteleraz hitz egiten dute."*

*"Euskara-eskoletan erabiltzen dugu, baina patioan ez; gazteleraz hobeto hitz egiten dugunez, gehiago erabiltzen dugu."*

*"Pertsona batzuek euskara erabiltzen dute kalean, baina, hitz egiterakoa, neskek ez dute erabiltzen; egia esan, ez daude ados B eredua ezartzearekin."*

Beste alde batetik, batzuetan, euskaraz hitz egiten dute anai-arreben artean, biek dakitelako, eta horrela ez dute ohitura galtzen, edo gurasoek ez diezaieten ulertu.

*"Etxean hitz egiten dut pixka bat nire anaiarekin."*

*"Batzuetan anaiarekin euskaraz hitz egiten dut etxean, berak ere badaki eta."*

*"Batzuetan, ez badut nahi amak ulertzea anaiari zer esaten diodan, euskaraz hitz egiten diot, horrela nire amak ezin du jakin zer esaten dugun, eta zer asmorekin gabiltzan."*

*"Ez dute ikastorduz kanpoko eskolarik behar ikasteko, euskaraz bakarrik hitz egiten dute txikitatik."*

Ikus dezakegu, baita ere, gazteago eskolatu diren adingabeek euskara gehiago erabiltzen dutela; hasieran, ikastetxean ikasten dute euskera, baina, hazten doazen heinean, beren pare-taldearen arabera izaten da erabilera. Adingabeek ikusten badute "kalean erabiltzen dela", euskaraz hitz egiten dute, baina ez bazaie iruditzen jendeak, orokorrean, euskara erabiltzen duenik, egoera jakin batzuetan soilik erabiltzen dute.

Halere, sozialki euskara erabiltzen ez badute ere, euskarazko multimedia-produktuak kontsumitzen dituzte, hala nola, telebista edo DVDak ikustea. Multimedia-produktu horien bitartez, adingabeek euskara ikasteko prozesua indartzen dute; azkarrago eta hobeto ikasten dute euskara.

Tutoreek ere hala diote, eta material horiek erabiltzera animatzen dituzte.

*"Nire ustez euskarazko kate gehiago jarri beharko lituzkete, gutxi daude eta; ekintza dibertigarrien bitartez haurrek euskara ikas dezaten."*

*"Nire ustez ikasteko beste bide batzuk izan behar dituzte, hezkuntza-programetatik gertu; Txirri, Mirri eta Txiribiton, adibidez, heroiak dira, lan egiten dute eta ongi transmititzen dute. Hezkuntza-prestakuntzaren aldeko apustua egingo nuke nik, derrigorrezko bide zuzenen aldekoa egin beharrean."*

ETORKIN ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN INTERESAREN  
AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)

*“ETBn marrazki bizidun batzuk euskaraz ikusten dituzte, batez ere txikienak; nik hor uzten dut telebista ikusten.”*

*“Nik jartzen diot telebista euskaraz. Nire ustez lagunduko dio ikasten, kosta egiten baitzaio. Ikasteko modu bat da.”*

*“Irakasleak esan dit euskarazko liburu gehiago irakurri behar dituztela, eta ETBn ikusten dituzten marrazki bizidun guztiak euskaraz dira.”*

#### IV.- ONDORIOAK

Errefuxiatu eta etorkin helduen populazioak euskara ikasteko duen interesa aztertu ondoren, honako hau ondoriozta dezakegu:

- Errefuxiatuen eta etorkinen kolektiboaren portzentaje oso baxua ari da euskara ikastean, %1 baino gutxiago, hain zuzen ere. Halere, 2004 urteaz geroztik, pertsona bat izatetik 24 izatera pasa dira.
- Euskara bigarren maila batean geratu ohi da, etxebizitza izatearen, lanaren edo gaztelera ikastearen atzetik.
- Etorkinek eta errefuxiatuek zailtasun gehiago dituzte euskara ikasteko motibazioak baino: denbora-falta, arazo ekonomikoak, gutxi erabiltzen dela eta bertakoek ez dutela nahikoa sustatzen...
- Etorkinek lehentasuna ematen diote gaztelerari, Euskal Autonomia Erkidegoan ez delako euskara ikastea sustatzen, eta ez delako euskararen erabilera soziala antzematen.
- Lana da euskara ikasteko motibazio handiena.
- Tutoreek frustrazioa sentitzen dute, euskara ez dakitenez, ezin dietelako adingabeei beren ikasketekin lagundu; Euskal Autonomia Erkidegoan denbora batez bizi izan badira, euskara ikasteko interesa sortu ohi zaie.
- Badago erlazioa herrialde espainieradunen eta euskara ikastearen artean, baina horrek ez du esan nahi pertsona espainieradunak euskal kulturara gehiago hurbiltzen direnik.
- Migratzerakoan, etorkin eta errefuxiatu gehienek ez dute jakiten zein den Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate soziokulturala, eta, horregatik, hona iristean, ez dakite adingabeak non matrikulatu. Etxetik gertu egotearen arabera, edo erakundeen aholkuen arabera, erabakitzen du iritsi berri askok haurrak non matrikulatu. Askotan ez da kontuan hartzen adingabeen iritzia horiek matrikulatzerakoan.
- Beren ardurapean adingabeak dituzten pertsonen euskara ikasteko interesa sortu ohi zaie adingabeak eredu euskaldun batean matrikulatzen dituztenean, horiei lagundu ahal izateko.

Bestalde, adingabe errefuxiatuen eta etorkinen populazioak euskararen errealitateari buruz egiten duen balorazioa aztertuta, honako hau ondoriozta dezakegu:

- CEAR-Euskadiko teknikariek familiarekin esku hartzen dutenean, horiek eredu euskaldunetako matrikulazioaren alde egin ohi dute.
- Gaztetxoek euskara ikasteko duten interesa beren pare-taldeen arabera izaten da. Euskal kulturarekiko eta euskara ikasteko interesa duen jendearekin elkartzan badira, beraiek ere hurbiltzen dira euskarara eta euskal kulturara. Aldiz, euskal kulturarekiko eta euskara ikasteko interesik ez duen jendearekin elkartzan badira, beraiek ere ez dute interesik izaten.
- Zenbat eta gazteagoak izan adingabeak, orduan eta joera handiagoa dago horiek eredu euskaldun batean matrikulatzeko, beren ikaskuntza-prozesuan natural iruditzen baitzaie euskara. Helduagoek, berriz, betebeharrak gisa ikusten dute, eta gaztelerazko ereduari matrikulatu ohi dira horiek.
- Adingabe atzerritar gehiago daude A ereduari mantendu edo ezarri den ikastetxeetan, ez baitute ikaskuntza- eta integrazio-arazorik izaten.

ETORKIN ETA ERREFUXIATUEK EUSKARA IKASI ETA ERABILTZEKO DUTEN INTERESAREN  
AZTERKETA (CEAR-Euskadi, 2008)

- Eredu euskaldun batean dauden adingabeek, eredu aldatu nahi badute, ikaskuntza-kalitatea hobetzeagatik izaten da, bai eta hizkuntza integrazio-arazo izan ez dadin ere.
- Ikastetxeetan ez dira ghettoak sortzen; hasieran bertako jendearekin integratzea kostatzen bazaie ere, denbora pasa ahala, adingabeak nazionalitate guztietako jendearekin erlazionatzen dira.
- Lehenengo urtean, adingabeek laguntza-eskolak behar izaten dituzte euskara ikasteko, baina, normalean, ikastetxeak ez die horrelakorik eskaintzen. Lehen urte horretan egokitzen ez direnez, A eredura pasatzea erabakitzen dute.
- 
- Adingabeek ez dute euskara erabiltzen sozialki, erosoago sentitzen direlako gaztelerarekin. Sozialki erabiltzen ez badute ere, bitarteko audiobisualak erabiltzen dituzte beren ikaskuntza indartzeko, eta, horrela, metodo dibertigarrien bidez ikasten dute, eta ez dute betebehartzat jotzen. Tutoreek beharrezkotzat jotzen dute adingabeek euskara ikastea, baina adingabeek beraiek bultzatzen dute beren burua euskara ikastera, bitarteko audiobisual horien bitartez.
- Beren ardurapean adingabeak dituzten helduek beren seme-alabei deribatzen diete euskara ikasteko ardura.

## V.- GOMENDIOAK

CEAR-Euskadin, euskararen inguruko azterketak egiten ari gara 2004az geroztik. Hori horrela, eta gure azterketa dinamikoa izan dadin, ikerketa irekia egiten saiatzen gara, eta aurreko urteetan amaitu gabe utzi ditugun alderdiak zehazteko eta sakontzeko ahaleginak egiten ditugu urtero. Horregatik, etorkizunean egingo ditugun ikerketetan honako alderdi hauek aztertu nahi ditugu sakonki:

- Euskararen erabilera eta egonaldi-denbora aztertzea.
- Hizkuntza gutxituak eta euskararekiko interesa aztertzea, hizkuntza bakoitza banaka aztertuz, guztiak batera aztertu beharrean.
- Zenbait udalerritako etorkinentzako euskalduntze-politikak aztertzea.
- Sakonkiago aztertzea zer erlazio dagoen herrialde espainieradunen eta euskal kulturarekiko hurbilketaren artean; erakutsi da erlazioa duela euskara ikasteko interesarekin, baina ez da sakonki aztertu zer erlazio duen euskal kulturarekin.
- Sakonkiago aztertzea ea euskal kultura ezagutzeak euskara ikasteko interesa pizten duen. Gure elkarrizketen arabera, ez da horrelako erlazioirik existitzen, baina ezin dugu horrela denik baieztatu, ez baita eztabaida ezina.
- Euskaldunak diren udalerrietan D ereduko matrikulazioekin zer gertatzen den aztertzen jarraitzea.
- Atzerritarrek euskara ikasteko erabiltzen diren metodologiak hobeto aztertzea.
- Hasiera batean eredu euskaldunetan eskolatu diren adingabe etorkinek euskararekin zer erlazio duten aztertzea.

VI. TAULAK

Euskararekiko interesaren banaketa, sexuaren arabera (2008)

	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
Ikasten ari dira	17	7	24
EZ dute interesik	1229	430	1659
BAI, interesa dute	876	456	1332

Euskararekiko interesaren bilakaera (2004-2008)

	2004 urtea	2005 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2008 urtea
BAI, interesa dute	54,34%	38,34%	41,44%	39,88%	44,18%
EZ dute interesik	45,66%	61,50%	58,31%	59,62%	55,02%
Ikasten ari dira	0,00%	0,17%	0,25%	0,50%	0,80%

Euskararekiko interesaren banaketa, adinaren arabera (2008)

	18 urte baino gutxiago	18 eta 25 urte artean	26 eta 35 urte artean	36 eta 45 urte artean	46 eta 55 urte artean	56 eta 65 urte artean	65 urte baino gehiago
Ikasten ari dira	0,92%	0,79%	1,00%	0,60%	0,40%	0,00%	0,00%
EZ dute interesik	55,96%	56,29%	55,23%	52,68%	54,22%	68,09%	50,00%
BAI, interesa dute	43,12%	42,92%	43,77%	46,73%	45,38%	31,91%	50,00%

Euskararekiko interesaren banaketa, jatorriko herrialdeko hizkuntzaren arabera (2008)

	EZ espainieradunak	BAI, espainieradunak
Ikasten ari dira	13	11
EZ dute interesik	1259	400
BAI, interesa dute	611	721

Euskararekiko interesaren banaketa, profilararen arabera (2008)

	Herrigabea	Asiloduna	Atzerritarra
Ikasten ari dira	0	2	22
EZ dute interesik	4	257	1398
BAI, interesa	1	41	1290

| **dute** | | | |

**Euskararekiko interesaren banaketa, hizkuntza gutxitu bat jakitearen edo ez jakitearen arabera (2008)**

	<b>EZ daki hizkuntza gutxiturik</b>	<b>BAI, hizkuntza gutxitu bat daki</b>
<b>Ikasten ari dira</b>	19	5
<b>EZ dute interesik</b>	1559	100
<b>BAI, interesa dute</b>	1209	123

**Euskararekiko interesaren banaketa, hezkuntza-mailaren arabera (2008)**

	<b>Ikasten ari dira</b>	<b>EZ dute interesik</b>	<b>BAI, interesa dute</b>
<b>Lizentziatura</b>	2	86	137
<b>Diplomatura</b>	4	58	79
<b>Lanbide-heziketa</b>	1	116	102
<b>Derrigorrezkoa ez den bigarren hezkuntza</b>	6	442	549
<b>Derrigorrezko bigarren hezkuntza</b>	4	108	104
<b>Lehen hezkuntza</b>	5	616	293
<b>Ikasketarik gabe</b>	0	80	13
<b>Bestelakoak</b>	1	19	19

**Euskararekiko interesaren banaketa, atzerritar gehien dituzten Bizkaiko 5 udalerrien arabera (2008)**

